

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a / 731. zenbakia

UDAL ARTXIBOA / Udalaren eta Lagun Aroren arteko hitzarmena

Lagun Arok laguntza emango du artxiboa berritzeko

UBANE MADERA

Aurreikuspenen arabera, gaur (egubakoitza) ziren hitzarmena sinatzekotan. Horrei esker, 25.000 euro emango dizkio Lagun Arok Udalarari iazko abuztuan kaltetu zen artxiboa berreskuratzen laguntzeko. Hain justu ere, dagoeneko badabilta lan hori egiten.

Izoztuta dauden dokumentuak berritzen dabilta orain. Madrildgo enpresa bati esleitu zizkioten lan horiek, 298.000 eurotan. Hark bi hiletik behin bidaliko ditu Madrildik Arrasatera berreskuratzen doazen dokumentuak. Guztira, 22 hilabeteko epea du guztiak berreskuratzeko, 80 bat.

GAINERAKOA OÑATIN

Baina, izoztutako dokumentuak artxibo osoaren %3-edo besterik

ez dira. Artxibo historikokoak dira guztiak. Gainerako dokumentuak, artxibo administratibokoak, Oñatiko biltegi batean dituzte gordeta. Baina haiek egoera onean daude. Uholdeekin busti egin ziren, baina gero sikatu ere bai. Karpeta berrietan sartzea, dokumentuak berrantolatzea eta halako lanak egitea besterik ez zaie falta. Eta Udaletik jakinarazi digutenez, sortu berri duten administrari laguntzaileen lan poltsatik bi

25.000 euroko laguntzaz gainera, Lagun Arok beste 55.000 euro ere eman ditu, kalte-ordainean

lagun aukeratu eta haiek egingo dituzte lan horiek. Udaletxean bertan jardungo dute lanean, hiru hilabetean. Asmoa da urrian hasia berrantolatze lanok.

LEKU BERRIA BEHAR

Gogoan izango duzue, iazko abuztuan izan ziren uholdeak udal artxiboan, udaletxean bertan gertatu zen ur jario batek eraginda. Udalekoak abuztuaren 30ean jabetu ziren gertatutakoaz. Ordurako, artxiboaren sotoan ur mordo zegoen eta dokumentu asko kaltetu ziren. Orain, kaltetutako guztia edo ia guztia berreskuratze lanak egiteaz gainera, Udala aztertzen dabil artxiboarendako udaletxekoa ez den beste leku egokiago eta handiago bat ipintzea; baina oraingoz ez dute behin betiko erabakirik hartu.



MIKEL LUPIAÑEZ

Kultura etxeko lanetan ez da berrikuntzarik, azken hilabeteotan geldi daude-eta.

PSE-EEK errekurritu egin du frantziskotarren hitzarmena

U.M.

Joan den asteko udalbatzarrak onetsi zuen hitzarmena. EB abstenitu egin zen, PSE-EEK eta PPK kontra bozkatu zuten, eta EAJK, EAK eta Aralarrek alde. Orain, berriro aztertu beharko dute gai bera osoko bilkuran.

Hitzarmenaren arabera, Udalak frantziskotarrei komentuen beste 700 metro koadro erosiko dizkio, 601.000 euroren truke. Bada horren aurrean, zera adierazi du PSE-EEKo bozeramaile Paco Gartzia: "601.000 eurogatik lokal horiek erostek ez die erantzuten administrazio municipalak dituen beharrei baizik eta frantziskotarren beharrik betetzea da helburua". Halaber, gaineratu du fran-

tziskotarrei 600.000 euro ordaintzea "herritarren zergak xahutzea dela"; izan ere, Gartziazen ustez, negozioaren azken helburua "frantziskotarren komunitatearen interesaren alde egitea da eta ez Arrasateren interes orokorraren alde". Hori arrazoitzeko zera dio, besteak beste: "Hitzarmenean ez dago aipamenik erakundeak (Udalak) altzari-ekipamenduan defizit posibleren bat izan dezakeenik. Eta ez du aipatzen, kokaleku hoberik behar duenik zerbitzu, lan-talde edo organo handitzeren bat egin behar dutelako edo udal bulegoek kokapen berria behar dutelako".

Errekurtsoaren ondorioz, lehen esandako moduan, gaia berriro aztertu beharko dute, Hirigintza Sailean lehenengo eta osoko bilkuran, gero.

Makatzena auzoan ez dituzte eskailera mekanikorik eraikiko

U.M.

Joan den astean, Makatzena zaharberritzeko lanen gaineko artikuluan, iragarri genuen, besteak beste, eskailera mekanikoak ipiniko dituztela Hondarribia eta Makatzena kaleen artean. Bada, Udaletik jakinarazi digute hori ez dela horrela izango.

SAKONAGO AZTERTU BEHAR

Kontua da hasierako proiektuan eskailera mekanikoak ipintzeko asmoa zutela; baina egindako azterketen arabera, ez dute oso argi ikusi eskailera mekanikoak ipintzea dela irtenbiderik egokiena. Bestelakoen artean, halakoak mantentzea oso garesti izaten delako. Gauzak horrela, era-

baki dute hasiera baten bertan behera uztea asmo hori, eta egoera sakonago aztertzea.

LUR AZPIKO EDUKIONTZIAK

Horrez gainera, nabarmendu dute hasierako proiektuan egindako aldaketan artean, lur azpiko edukiontzia ipintzea ere erabaki dutela. Bost ipiniko dituzte.



San Andres 7 20500 ARRASATE Tel.: 943 79 13 39



**30 urte zuen zerbitzura
Zuen fideltasuna saritu nahi dugu**

**Urriaren 3tik 30era autoari erregaia botata, saria eraman dezakezu.
Astero 50 sari zozketatuko ditugu.**

Hauek dira sariak: 10€, 20€ eta 30€-ko txartelak erregaia botatzeko eta 30 txartel auto garbigailua erabiltzeko.

Drogen analisia egiteko eta informazio lortzeko zerbitzua gaur

U.M.

Otalora Lizentziaduna eta Inazio Zuloaga kaleen artean furgoneta bat ipiniko dute. Drogen gaineko informazioa eskuratu ahal izango da, drogen analisia egin eta drogen gainean ditugun kezak argitu. Helburua da droga erabiltzaileen artean arriskuak txikitzeko ohiturak bultzatzea.

Testing furgoneta 00:00etatik 03:00ak arte izango da Arrasaten, Ai-laket! elkartekoen gidaritzapean. Udaleko Prebentzio Sailko teknikari Maite Aizpirik esandakoaren arabera, "kome ni da jakitea zer kontsumitzen den eta informazio handiagoa izatea, arriskuak txikitzeko". Horrexegatik ipiniko dute halako furgoneta bat gaur gauean, Maritxu Kajoiaren ospakizun gauean. Hala, drogen analisia egiteaz gainera, prebentziarako materiala ere izango da, interesa duenarendako.

Lehen esandako moduan, honakoak dira ekimen horren helburuak: gazteen artean arriskuak txikitzeko ohiturak barneratzea, substantzien gaineko informazioa ematea (haien ondorio nagusiak, osaketa, kontsumoaren arriskuak



Bereziki haxixa, kokaina eta anfetaminak eramaten dituzte analisia egitera.

txikitzeko aholkuak...) eta erabiltzailea substantzia ilegalen gaineko osasun kontrolik ezaz ohar-taraztea, drogen aizuntzeaz (adulterazioa) abisua emaniez.

18-30 URTEKOAK, BATEZ ERE

Udal prebentzio teknikariak kontatu digunez, bestelako urteotako esperientziaren arabera, "orokorrean gazte jendea joaten da

furgonetara, 18-30 urte bitartekoak. (...) Gehien eskatzen dutena, berriz, kalamuaren, kokainaren eta anfetaminaren gaineko analisiak eta informazioa izaten da". Halaber, gaineratu digu harrera ona izan duela bestetan furgoneta horrek. "Ikusten da jendeak baduela interesa drogak ahalik eta arrisku gutxirekin kontsumitzeko".

LABUR

Datorren astelehenean, hilak 17, hasiko dira Guraso Eskolak, Emakume Txokoan

Hain zuzen ere, astelehenean, 0 eta 4 urteko umeen gurasoen taldea hasiko da eskolan. 18:00etan dute hitzordua, lehen esandako moduan, Emakume Txokoan. Gero, eguaztenean, hilak 19, 5 eta 9 urtekoen gurasoen txanda izango da. Talde horrek 14:45ean du hitzordua. Eta 10 eta 14 urteko ikasleen guraso taldeari dagokionez, Udaletik jakinarazi digute oraindik taldea ez dela osatu, beraz, parte hartzeko interesa dutenek oraindik badutela izena emateko aukera. Horretarako 943 79 09 00 telefonora deitu beharra du edo Udaleko Prebentzio Zerbitzura jo.

Zapatu goizeko autobus zerbitzua berriro ipintzeko eskatu dio Udalak Diputazioari

Abuztuaren 31n Pesa enpresak Udalarik autobus orduetgia bidali zion eta Udala konturatu zen zapatuetan 09:30ean izaten zen autobus zerbitzua kendu egin duela Pesak. Gauzak horrela, oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrean erabaki dute Arrasateko Udaletik eskaera egitea Gipuzkoako Diputazioari zerbitzu hori berriro ipin dezaten. Udalak uste du "Arrasatek zerbitzu berriak behar dituela eta ez daudenak kentzea, eta beharrezkoa dela garraio publikoa hobetzea". Halaber, Diputazioari gogorarazten dio gai horren gaineko alegazioa ere aurkeztu zuela, zehaztutako epe barruan.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dagoela iragarri dute

Hain justu ere, zerga hori ordaintzeko borondatezko epea zabaldu zuen Udalak irailaren 28an. Eta epe hori azaroaren 28ra arte izango da zabalik. Behin epea bukatu eta gero, ordaindu barik geratu diren ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte. Bestalde, gogoan izan datorren urriaren 15ean bukatuko dela zaborrak batzeagatik eta ur eta saneamendu zerbitzuengatik zergak ordaintzeko borondatezko epea. Kasu honetan ere, ordaindu ezean, %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte fakturak.



Elgeta-Piel

*Eskaintza bereziak:
49 -tik aurrera!*

Domingo Iturbe 8

ELGETA

Tel.: 943 76 81 12

Martitzenetik zapatura:

17:00-20:00.

Domekak:

11:00-13:30.

Astelehenetan itxita.

Goizez zein arratsalde zabalitzen hasi dira herriko posta bulegoa

U.M.

Egunean sei ordu gehiagoz zabalitzen hasi dira Correosek Arrasaten duen bulegoa. Orain arte, 08:30etik 14:30ak arte izaten zen zabalik; joan den astelehenetik aurrera, berriz, 08:30ean zabaldu eta 20:30ak arte dago zabalik astelehenetik barikura; eta zapatuetan 09:30etik 13:00ak arte.


Ordutegi handitzea Correosek duen egitasmo berrian kokatzen da, herritarrei posta erabiltzeko erraztasun handiagoa emateko asmoarekin abiarazi duen Irisgarritasun Planean, hain zuzen ere.

HERRITARREN BEHARRETARA EGOKITUTA

Hala jakinarazi digute prentsa ohar baten bitartez: "12 orduko eten bako arreta horrekin udalerriko enpresa eta herritarrei posta bulegora heltzea errazten diegu. Herritarren beharrei egokitzen da, lan ordutegien ondorioz ordutegi zabalagoak eta eguerdian eten bakoak eskatzen dituzte-eta. Hala, bestelako onuren artean, banaketa orduetan etxean ez dauden bizilagunek ez dute zapatura arte itxaron behar-paketeak hartzeko".

OROTARIKO ZERBITZUAK

Halaber, gaineratu dute "Arrasatekoaren moduko posta bule-



IKER BARANDIARAN

Otalora kaleko 3-5 zenbakietan dago Arrasaten posta bulegoa.

goak orotariko zentro bihurtu arteko bilakaera izan dute; zerbitzu postalak eskuratzeaz gainera, herritarrek geroago eta gestio gehiago egin ditzakete". Adibidez, telefono-operadore guztien txartelak berriz kargatzen dituzte; Endesa, Telefonica, Gas Natural eta antzerako enpresen fakturak ordain daitetze...

BOLIVIARAKO MATERIALA

Bestalde, jakinarazi digute Correosek egiten duen gizarte ekintzako ekimenen artean, azaroaren 30era arte eta Unicef-ekin elkarlanean, Boliviako umeendako materiala batuko dutela. Hain justu ere, koadernoak, arkatzak, boligrafoak, zorrozkailluak eta borragomak batzen dabilta.

LABUR

Frutagintza eta baratze zaintza ikastaroa antolatu du Arrasateko Udalak

Mendikoirekin elkarlanean antolatu du ikastaro hori Udalak. Zapatu goizetan izango da, 09:00etatik 14:00ak arte, hama-bostean behin. Udalako Ingurugiro Eskolan izango dira eskolak. Izena emateko epea zabalik dago. 50 euro ordaindu behar du bakoitzak. Urriaren 22an hasiko da ikastaroa eta guztira, 40 eskola-ordu izango dira.

Ikastaroak bi zati izango ditu: teorikoa eta praktikoa.

Halaber, jakinarazi dute ikasgai bakoitzarekin lotutako gai jakinak landuko dituztela. Hala, frutagintzari dagokionez, honako hauek: lur prestateta, patrioiak eta barietateak, ongarriketa, gaitzen eta izurriteen kontrola eta kimaketa. Baratze zaintzari dagokionez, berriz, honako gaiak landuko dituzte: lurra, landarea, ongarririak, fitopatologia, barazkiak eta txertoak.

'Bulegotik ingurumena zaintzen' gidaliburua

Joan den astean banatu zuten *Bulegotik ingurumena zaintzen* izeneko gidaliburua herriko enpresa, bulego eta denda guztietan. Edozelan ere, beste norbaitek eskuratu nahi izanez gero, Udaleko Ingurumen Sailera jo besterik ez du. Bulegoko lanek eragiten duten kontsumoak (energia, baliabide naturalak...) ingurumenean ahalik eta inpartu txikien sortzeko zenbait gomendio dakar liburu horrek.



Arrasateko
euskalgintza

"Denok eginez gero, euskarak ez du behera egingo"

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Patxi Oregiren esperientzia ekarri dugu oraingoan. 36 urteko arrasatearra da, 14 urtera arte Ikastolan ibilitakoa. Arrasaten bizi da; gurasoak euskaldunak ditu. Baina, besteak beste, erdaldunetz inguratuta bizitzeak eragin handia izan duela aitortu digu.

"Hori horrela izanik, nire euskaldun egunak zenbatuta zuden. Motibaziorik gabe, eta gehiago esango dut, desmotibatuta. Gaztelaniaz hasi ginen. Ingurua dela eta... 14 urte eta "punkiak gara, ez?" eta... beti pentsatu izan dudana: euskarak ez du hitz molde, esaera edo jerga estilorik; eta gaztaroan hori da bilatu ohi dena. Euskarak "¿qué pasa tio?" edo "paso de todo" eta antzekorik ez duenez... gaztelarara!

Ikastola utzi eta guztiok berdin. Noiz arte horrela? Bada, inguruak "behartu" ninduen arte. Erdal giroan zegoen nire burua, euskal giroan ikusi nuen arte; eta gauza batek bestea dakarrenez, berriz euskaldundu nintzen. Bizitza erdia erdaldun moduan egin dut; orain, euskaldun moduan pentsatzen dut.

Niretzako "punk" garaiok (eta esamolde faltak) jendeak euskara utzi izanaren arrazoi dira; zergatik? Koadrilan hala izan zen eta sarri ikusi dut beste batzuk antzera egin dutela; jatorriz, euskaldunak izanda ere! Dena dela, batzuetan, desesperatu egiten nau umeak hitz egi-

ten entzuteak; gaizki! Baina atzera begiratu eta horiek ere guk pasatako bideak jarraituko dituztela iruditzen zait, eta guri euskara ahaztu ez bazitzaigun, ez dute horiek zertan galdu. Hori dela eta, batzuetan goian eta bestetan behean sentitzen naiz; baina badut zer eskertu: euskara berreskuratu izana. Dena dela, euskara dagoenetan egotearen errua euskaldunok dugu. Gaztelaniarako joera ez murriztearren eta noizbehinka euskara ezpainetan izateaz nahikoa dela pentsatzearen. Noski, Durangoko azokan edo Nafarroa Oinez dirua penitentzian utzita, euskal zerua irabazita!

Geurea onartu ostean, politikari eta kargu publikoek egiten dutena ikusten dut, eta lotsagarria! Adibidez, ETBkoek galderak euskaraz egiten dizkietenetan bakarrik erantzuten dute euskaraz, gainontzekoetan gaztelera automatikoa da. Hori bai, guztiak dira ABERTZALE!! Eta noski! ETB erraztasunean erortzen da: zertarako itzuli, "guztiok" gaztelania ulertzen badugu?!"



LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Expres kafetegia

- Plater konbinatuak
- Otartekoak
- Olagarroa

galiziar erara

Tel: 657.793.707
Maalako Errabala 8, behea

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 8**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- DOMEKA, 9**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 10**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- MARTITZENA, 11**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 12**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 13**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 14**
Español. Araba etor. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako ebexa 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRIAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	San Isidro
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

OHARRAK

MARITXU KAJOI
Gaur, egubakoitza, Maritxu Kajoi. Besteak beste, 08:00etan, etxafuegoak; 18:00etan trikitilariak; 19:00etan, erraldoi eta kilikien kalejira; 19:30ean, txaranga; eta 00:00etan, dantzaldiak Herriko Plazan eta Seber Altube plazan.

'XOMORROAK' IKUSKIZUNA
Bihar, zapatua, umeendako *Xomorroak* musika antzez-lana egingo dute Amaia Udal Antzokian. 17:00etan izango da.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako emakumeek urteroko hitzordua egingo dute hilaren 22an. 13:00etan meza izango dute, eta horren ostean Musakola Hostalean bazkalduko dute. Interesatuak jo dezatela Seber Altubeko 8. zenbakira izena ematera.

1949AN JAIOTAKOAK
1970eko kintoeak, hau da, 1949an jaiotakoek urteroko hitzordua dute hilaren 15ean. San Frantziskon meza entzungo dute, 12:30ean. Horren ostean, Musakola Hostalean bazkalduko dute. Izena ematerakoan, 30 euro ordaindu beharko dituzte. Horretarako, Lore lurrindegira edo Zabaleta dendara jo beharko dute.

AEDrenAGENDA

AEK-KO BERTSO ESKOLAK
Laster jarriko dituzte abian AEDko bertso eskolak, 2005-2006 ikasturtea hastear dago-eta. Interesa daukaten gaztetxoek jo dezatela AED elkartera.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibal, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibal, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Geltokiko lanak egin arte, INEM Eibarren

Tren geltoki zaharra eraberritzen ibili ziren han INEM bulegoa jartzeko. Ordura arte INEMeko bulegoak Otalora kaleko 31. zenbakian egon ziren, baina Arrasate Telebista eta *Arrasate Press* jarri zituzten han. Geltokia berritu arte, Eibarko bulegora jo beharko zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Puntako"



— Aldazabal etzan punta-puntako pelotarixa izan baina atzelari ona bai.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 2 **10 °C**

MAXIMOA Egubakoitza, 30 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **10,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	26 °C	13 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 29	21 °C	14 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 30	28 °C	10 °C	— l/m ²
Zapatua, 1	20 °C	10 °C	7,1 l/m ²
Domeka, 2	17 °C	10 °C	3,4 l/m ²
Astelehena, 3	17 °C	10 °C	— l/m ²
Martitzena, 4	20 °C	10 °C	— l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Arrasate Irratiak ere arropa dotore-dotoreak jantziko ditu iluntzeko zortzietatik aurrera

Gaur, egubakoitza, Arrasaten Maritxu Kajoi eguna ospatzen dugula-eta, herriko irratia ere hartu gura izan du parte jaietan. Hori dela eta, iluntzeko zortzietan piztu 107.7a, eta zauden tokian zaudela, jai giroan izango zara zu ere! Mikrofonoak eskuetan hartu eta Herriko Plazan dagoen Mendia jauregian izango gara. Maritxuren pareparean, aurtengo miraria eta kalean ikusten dugun guztia ere kontatzeko prest. Baina aurtengo saioak izango du bestelako

berrikuntzarik, Berlinera ere hurbilduko gara-eta. Han, Arrasateko Des-Kontrol musika taldearekin egin dugu hitzordua, egiten dabilzan biraren berri eman diezaguten.

ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN

Maritxu Kajoiaren biharamun egunerako ere badugu proposamenik, astean irratian izan dugunaren laburpena. Literaturaren geltokian, *book-crossing*-a zerden azalduko dugu; eta Anger taldeak aurkeztuko digu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko gainbegiratu. Iban Retolatza, Book-crossing-aren gainean; Kepa Errasti, Goenkaleko aktorea...

DOMEKA
10:00 Asteko gainbegiratu.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarriketak.
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)

- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

* Oharra: Asteazkena, hilak 12, jai eguna dela eta ez da zuzeneko saiorik izango. 10etan elkarriketeta bilduma izango da.

KALEINKESTA/ Gustetan jatzu Maritxu Kajoi? Ze hobetu edo kanbixauko zeuke?




PETRA MARI INDA
Erretiraue



MANUEL BAENA
Langillie



FELIX ERAÑA
Langillie



RAMON ALTUNA
Langillie



IRATI BARRENETXEA
Ikaslie



MARIJE GOMEZ
Langillie

Ez da neuretako moduko jaixe, gaztiendako da. Hasieran gauza politte zan, baiñe gaur egun kontue da zein doien elegantie; kontsumismo hutse bihurtu dala pentsetan dot.

Neuri jaixe asko gustetan jat, oso giro ona egoten da, eta jentie elegante janztie be politte da. Ez neuke ezer kanbixauko... Egund eger xau egin ezkeru, ez litzake iguela izengo.

Maritxu Kajoi jaixe oso politte da, baiñe azkeneko urtiantan larrei kanbixau da, eta txarrera egin dau. Lehen arropa zaharrak janzten geuen, baiñe gaur egun dana askoz sofistikaue da.

Neuk pentsetan dot jaixe ondo dauela, baiñe gaba horretan lanien ibiltten naz, eta kalien dabillenak esan biherko dau zelan dauen. Sofistiketan juen da, baiñe ondiokan jai berezixe da.

Asko gustetan jat jaixe. Ez dakit hobeketako askorik daukon. Zeozer kanbixetakotan, ahalegindduko nitza ke kanpotarrei espliketan jaixe nundik nora datorren, eta zergaittik egitten dan.

Gustetan jat, baiñe pentsetan dot zeozer aldatu biherko geukela, batez be hurrengo egunien herrix zelan egoten dan ikusitte. Gutxieu zikinddu biherko geuke.

USTEAKUSTE

Gehiegikeria

Askok daukate ahotan Kilometroak: euriak kalte handia egin zuela; batutako jende kopuru zehatzaren gaineko kinielak; Arizmendik, etorri ez zirenek laguntza eman dezaten, kontu korronteak zabaldu dituela; zozketatutako autoa nora joango den; Atutzak Debagoienara etorri aurretik politikagintza uztea erabakita ote zeukan.... Zortzi kilometrok askorako ematen dute. Galdetu bestela jaia antolatu, eta lanean ibili diren ehunka lagunei. Martitzean oraindik lanean zebiltzan.

Horrez gain, Kilometroak kontu sentsazionalista bat ekarri dute ibarrera. Hain zuzen ere, Aretxabaletara hurbildutako adin txikiko gazte kopuru izugarria eta multzo handi batek alkoholarekin erakutsi zuen gehiegikeria. Ez da gauza berria Kilometroan, Ibilaldian eta bestelakoetan gazteek gainontzeko egunetan egin ezin dituzten gauzak egitea. Askok eta askok egin izan dugu, ezin hori ukatu.

Egia da gizartea aldatuz doala (eta gu ere bai), baina aztertu beharko genukeena da zerk bultzatzen dituen eta zer eredu duten gazte horiek horrela jokatzeko. Euskararen eta ikastolen aldeko jai desitxuratzen dutela esaten dutenei esango nieke hori ez dela arazo nagusia. Arazoa gizartean dago.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK KULTURA EGITARAUUA ETXEZ ETXE Herritar talde batek aditzera eman digu oso pozik dagoela Udalak etxez etxe kultura egitarauaren gaineko esku-orriak banatu dituelako. "Aspaldi Gazte eta Kultura sailtako ekintzen berri horren bidez ematen ziguten, eta oso gustura hartzen genuen. Gerora, urte askoan, ez dute ezer bidali, eta horren hutsunea sumatu dugu". Horregatik, eskatu digute Udala txalotzeko, eta ahal duten heinean ohitura horri eusteko, "seguruenik herritarrek hobeto erantzungo dute-eta".

ASTEKODATUA

10.300

EURO EMANGO DITU UDALAK AKORDEOI LEHIAKETETARAKO

Udalak Hauspoz elkarteari 10.300 euroko laguntza emango dio Arrasateko Akordeoi Lehiaketak antolatzeko. Abenduaren 3tik 6ra egingo dituzte. Horrez gain, nazioarteko irabazlearendako brontzezko herensugea ere Udalak jarriko du.

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Mama goxua

Toloñoko tontorretatik salto eginda Araba Ebro ibaira isurtzen den lurretan hasi da, udazkenarekin batera, mahats-bilketa, ardozale eta zurruteroon pozerako, egin dezagun topa! Arabar Errioxa, Euskal Herri lehorra aizue, arrea eta ez berdea, baina hau ere Euskalherri, hoba ez!

Abian da bai mahaska. Ez da beste ezertaz hitz egiten kale, sukalde eta tabernetan, mahatsa prezio onean ordainduko ote den, mendi aldetik euri-lainoak ote datozen... Borborrean da herria, traktoreen joan-etorri frenetikoa, goizean goiz hasi eta ilunkera arte, mahats-karrioren beharginak biltegia lepo egin guran. Upeltegiko ateaq parez-pare zabalik, presaka diardute lanean, hau hara eramazak, urlia nondik zebilek ostia, portugesez ere bai batzutan. Mahatsa heldu orduko heldu dira tenporeroak, urtero lez, euren furgoneta zaharrekin. Hegazti errariak,

azkenak akaso Gamarrako zikoinak ere sedentario egin zaizkigun honetan. Herriaren kanpoaldean pausatu dira, argia eta itzala bereizten diren lekuan. Gaztetxoek herriko eskolan kaixo esaten ikasiko dute, kaixo senhorita. Gurasoak bitartean, mahastian.

Gauean elkartuko dira berriro kanpamenduko suan eta ijito zaharrak orujoa edango du petakatik, fresko ere egiten du eta.

Arabar Errioxa, Euskal Herri arrea. Etxera bidean errepide ertzean gelditu dut autoa

eta orain dirudit Bako, mahats mordoia eskutan. Patxadaz bete dut eroskiko poltsa, grazianoa ala goiz-mahatsa, mazueloa nahiz garnatxa. Poltsakada bilduta, kotxea berriro martxan jarri eta errepidean gora egin dut, Kantabriar mendizerra zeharkatu eta Euskal Herri umel eta berderantz, kantari, mahatsaren orpotik dator mama goxua. Arlabanera orduko, lanbroa.

"Abian da bai mahaska. Ez da beste ezertaz hitz egiten kale, sukalde eta tabernetan"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupiañez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaloko
Udala



Iker Laspiur Beti Gazteko jokalaria batekin aurrez aurre.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Hainbat kirolarik trajea jantzi eta berehala etxera

XABIER URTZELAI

Urriko lehenengo egubakoitzak asteburu horretako kirol hitzorduak baldintzatzen ditu, goitik behera, gainera. Etxean jokatzen duena zorteko dago, norgehiagoka domekara atzeratzeko aukera daukalako. Eskubaloiko eta saskibaloiko taldeek ez dute zorte hori izan.

Maritxu Kajoiri eskerrak, batek baino gehiagok buruhauste galantak izan ditu asteburuko norgehiagokak zehazteko orduan. Mondrak domekan jokatuko du Atxabalpen, eta Igor Gordobilen mutilak neurrian baina lasai ibili ahal izango dira gaur kalean. Idiazabal taldearen kontra lehiatuko dira, eta talde horrek aparteko ezer ez badauka ere, defentsan sendoak dira. Idiazabalgoak 13.ak dira, baina etxetik kanpo oraindik ez dute partidurik galdu, Touringen eta Zestoaren kontra berdindu egin

zuten-eta. Mondrari dagokionez, Iker Lopez eta Zubikarai zigortuta daude, baina gainerako jokalariek eskura izango ditu Gordobilek. Idiazabal taldeari min egiteko, Mondrak azkar jokatu beharko du.

ERRUGBIAN, ATSEDENA

Gaur gustura ibili ahal izango direnak Arrasate Errugbi Taldekoak dira. Euskadiko Selektzioak Lurraldean Arteko Txapelketa jokatuko du, eta ligak deskantsua izango du. Hala, arrasatearrek joan den asteko garaipenak

Mondrak domekan jokatuko du, eta errugbikoek deskantsua izango dute asteburuan

emandako lasaitasunaz gozaten jarraituko dute.

BIHAR LANERA

Mugarri Alkesa saskibaloitaldeak ezin izan du Kalagorriren kontrako norgehiagoka atzeratu. Bihar jokatuko dute, 18:00etan Errioxan. Gainera, errioxarren kantxa ez da biharamunarekin joatea komeni den horietakoa, talde hori hazi egiten da-eta euren jarraitzaileen aurrean. Dena dela, badirudi ez dutela denboraldia gura moduan hasi, sailkapenean atzealdean dabiltzalako eta etxean ez dutelako irabazi. Padurak, adibidez, jipoi galanta eman zien orain dela bi asteburu (60-81).

Eskubaloian, Ford Mugarri Arrasate taldea Hondarribiara joango da bihar denboraldiko lehenengo garaipenaren bila. Aurre-denboraldian gogor ibili dira lanean, baina joan den astean azkeneko minutuetan behera eginda galdu egin zuten partidua.

Udalak kirolaren egoeraren gaineko hausnarketa egin du

X.U.

Arrasateko Udalak irailean argitaratu duen aldizkarian herriko kirolaren gaineko hausnarketa egin du. Unibertsitate mailan, kirol taldeei dagokienez eta herritarrek dituzten zerbitzuen gainean.

Hasteko, Inazio Lakuntza alkateak azpimarratu gura izan du bi urte barru arrasatearrek puntapuntako kirol instalazioak izango dituztela Mojategin. Hamar milioi euroko inbertsioa eska-

tuko du horrek, baina Atxabalpen egingo diren etxebizitzien salmentarekin ordainduko dute, neurri batean, inbertsio hori. Kirol instalazio egokiarekin, gainera, errazagoa izango da eskola kirola bultzatzea.

KIROL TALDEAK, ARAZOEKIN

Horrekin batera, baina, Udalak ondo daki kirol taldeek arazoak dituztela, gero eta kirolari gutxiago dagoelako. Eta, unibertsitatearekin jarri dira harremanetan, ikasleek arazo hori konpontzen lagun dezaketelako.



Errugbikoek eta atletismokoek eskertu egingo dituzte Mojategiko zerbitzu berriak.

GOIENKARIA

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Idiazabal

Preferentea. Domekan. 16:30. Atxabalpen.

Hondarribia - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Ondartza Kir.

Arrasate - Soraluze

Big. gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Elgoibar

Kadet. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Anaitasuna - Arrasate

Infantilak. Zapatuan. 11:00. Azkoitian.

Arizmendi Aretxabaleta - Mondra

Emakumezkoak. Domekan. 12:30. Almenen.

Arizmendi Arrasate - Urola

Kadete neskek. Domekan. 11:00. Mintxetan.

ERRUGBIA

Hernani - Arrasate

Gazteak. Domekan. 11:00. Hernanin.

SASKIBALOA

Kalagorri - Mugarri Alkesa Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Errioxan.

Lasao Altxariak - Mugarri Alkesa

Juniorrak. Zapatuan. 18:30. Azpetian.

Mugarri Alkesa Arrasate - BKL CAF

Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ESKUBALOA

Hondarribia - Ford Mugarri Arrasate

Lehen Territ. Zapatuan, 19:30etan, Hondarribian.

Allerru - Arrasate

Bigarren Territ. Domekan, 18:00etan, Lezon.

Gatz Museoa Jakion - CDB Leizaran

Gazteak mut. Domekan, 11:30ean, Iturripen.

Ehariaidea - Arrasate

Gazteak neskek. Zapatuan, 17:30ean, Gasteizen.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

MODAYANG

Erropa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 66.
URRETXU.

'Xomorroak', ume eta helduendako musika ikuskizuna

I.B.

Bihar, zapatua, **Xomorroak** umeendako ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. 17:00etan izango da. Anartz Zuatzuak eta Klaus Grotenek idatzi dute, eta musika Fermin Mugurutzak egin du.

Lore neskatilari, bost urte betetzearan, gurasoek lorontzia oparitutako diote. Puntu horretan hasten da ZTP Banaketak ekoiztutako musika antzezlan. Hain zuzen ere, Lorek lorontziaren barnera murgilduko ditu ikusleak eta lorontzian bizi diren pertsonaiaik eta haien istorioak izango dituzte berbagai.

Protagonista nagusienetarikoa Kike Kilkerra izango da. Kikek eulitxo bat jaiotzen ikusiko du. Eulitxoak ikusiko duen lehen biziduna Kike denez bere ama dela pentsatuko du, eta arazo hori konpontzeko ama-eulia aurkitzeko bidaia hasiko dute bi intsektuek.

Ikuskizun horren musika Fermin Mugurutzak idatzi du, eta CD bat kaleratu dute



XOMORROAK

Gaurkotasun handiko gaiak lantzen dituzte intsektu-protagonistek.

Kikek, bidean doazela, eulia izateko oinarriko gauzak erakutsiko dizkio eulitxoari: janaria aurkitzen, hegan egiten eta intsektu arrazak bereizten. Bidaia horretan hainbat gauza eta gizaki aurkituko ditu biko-teak: kazetari bat, pateran doazen bi labezomorro etorkin...

GAURKOTASUNEZ BETERIKO GAIK

Anartz Zuatzua egilearen esanetan, ikuskizunean gaurkotasunez beteriko gaiak landu dituzte: etorkinen egoera, besteak beste. Egileak islatu gura du "mundua ez dela batzuenak bakarrik eta bertan denok tokia daukagula".

Horrez gain, ume eta gazte-txoei erakutsi gura diete "desberdinak izan arren, badagoela elkar ulertzea, besteen berezitasunak errespetatzen ikasiz, besteak maitatzen erakutsiko digutelako".

ARTISTA EZAGUNEK ESKU HARTU DUTE

Egileak Anartz Zuatzua eta Klaus Groten dira, eta zuzendaria Anartz Zuatzua. Antzezleak, berriz, honako hauek: Aitor Gabilondo, Itziar Urretabizkaia, Asier Sota eta Aitziber Garmendia. Musika Fermin Mugurutzak idatzi du. Aipatu beharra dago iaz Metak diskoetxeak ikuskizuneko abestiekin osatutako CDa kaleratu zuela. Hain justu ere, rocka, latino, trip-hop, raggamufina, tangoa... batu zituen.

ELKARRIZKETA

IÑAKI RIVIERE / MARGOLARIA

"Nire lanak industriarekin identifikatu ohi dituzte; asko harritu egingo dira"

IKER BARANDIARAN

Iñaki Riviere arrasatearrak erakusketa jarri du Harresi aretoan. Hilaren bukaera arte egongo da ikusgai. Rivierek margotzeko erregistroa erabat aldatu du, eta motibo industrialak alde batera utzita, estrukturak ditu orain ardura nagusi.

Aspaldi ez dugu zure berri izan. Noiz jarri zenituen zure lanak herrian erakusgai azkeneko aldiz?


1997an egin nuen azkeneko banakako erakusketa Arrasaten. Bestalde, talde erakusketa batzuetan esku hartu dut Arregi galerian bertan, eta tarteka Gasteizen, Zarautzen, Durangon eta beste leku batzuetan jarri ditut nire lanak erakusgai.

Lehen beste margotzen duzu aspaldi honetan?

Sasoi baten fabrikari lanean ibili naiz eta askoz gutxiago margotu dut. Ezinezkoa da lehen egiten nuen moduan egunean zortzi bat orduan margotzea. Orain, berriz, ez nabil fabrikari eta denbora luzeagoa daukat.

Erregistroa zeharo aldatu duzu. Zure lehengo lanek industria kutsu handia zuten.

Bai, egia da, eta jende asko harrituta gelditu daiteke, nire lan askoren motiboa industria izan delako, eta horrekin identifikatzen nautelako. Aspaldi honetan,



MIKEL LUPIANEZ

berriz, arkitekturek eta estrukturrek pizten dute nire arreta. Are gehiago, elementuen serieak ere egiten hasi naiz. Horrez gain, lanen baten proiektzioak eta margoak uztartu ditut. Arregin 16 lan batu ditut, eta azkenaldian dudantxoeraren erakusle dira.

Bestalde, zure tailerrean erakusketak egin izan dituzu.

Bai, hala da. Orain arte bakarra egin dut, baina noizbehinka gehiago egingo ditut. Grupo San Juango 14. zenbakian daukat tailerra eta erakuslehoan jartzen ditut lanak ikusgai.

Thriller bat, drama bat eta komedia bat emango dituzte Amaia antzokian

I.B.

Gaur, egubakoitza, ez dute filmik emango Amaia Udal Antzokian. Baina datozen egunetan hainbat aukera eskainiko dituzte: drama bat, thriller bat eta komedia bat, hain zuzen ere.

Etzi, domeka, eta astelehenean, *Sin City* thrillerra emango dute. 124 minutu irauten du, eta Robert Rodriguez zuzendariak (*El mariachi*, *Abierto hasta el amanecer*, *Desperado*...) eta Frank Miller komikigileak egin dute. Horrez gain, Quentin Tarantinoren (*Reservoir dogs*, *Pulp Fiction*, *Kill Bill*...) laguntza ere izan dute. Millerren *Sin City* komiki famatuan oinarrituta dago filma, eta lege bako hiri batean gertatutako hiru istorio nahasten ditu. Millerrek zinema

beltza eta detektibeen istorioak oso gustuko ditu. Hain zuzen, DC eta Marvel komiki argitaletxeendako lan egiten du, eta hainbat sari jaso ditu.

Protagonistak honako hauek dira: Jessica Alba (*Los 4 fantásticos*, *Honey*...), Benicio del Toro (*21 gramos*, *Traffic*...); Clive Owen (*Closer*, *El caso Bourne*...), Mickey Rourke (*Búfalo 66*, *El mexicano*...) eta Bruce Willis (*Bandits*, *El protegido*...), beste-

ak beste. Eguaztenean, hilaren 12an, *Adivina quién* komedia emango dute. 106 minutu irauten du eta Kevin Rodneyek (*Moe's world*, *Chico conoce chica*...) zuzendu du. Aita batek ez du alabaren mutil-laguna onartuko eta kontra egingo dio. Protagonistak honako hauek dira: Bernie Mac (*Ocean's twelve*, *Los ángeles de Charlie*...), Ashton Kutcher (*Operación Reno*, *El efecto mariposa*...)

'OMAGH', ZINEKLUBEAN

Eguenean, hilaren 13an, *Omagh* filma emango dute. 106 minutu irauten du eta Pete Travisen zuzendu du. 1998an Irlandan IRAren su-etena indarrean zegoenean, IRAren fakzio batek Omaghen atentatu bat egin zuen, eta 31 lagun hil zituen. Atentatuaren eta haren ondorioen gainekoa da film hori.

'Sin City' filmak sariak jaso ditu oso modu bitxian eginda dagoelako, komikian oinarrituta

Hemen

GARBIKETAK

- Garbiketa orokorrak
- Obra bukaera eta erreformen garbiketak
- Industria garbiketak
- Mantentze garbiketak

Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Intxaurtxueta 16, behea. Eskoriatza

www.hemen-garbiketak.com

BOTEPRONTUEN

Ainara Gomez

EUSKALTEL

XABIER URTZELAI

Ainarak Komertziue eta Marketiñe ikesi euen Vittorixan, eta auto kontzesionario baten ibilli zan praktikak egitten. Mondragueko eta Eibarko Euskaltel denden arduradune da, eta ondo ezauketan dau konpetentzia, eurendako lanien be ibilli da-eta.

Telefono konpañiek gerra haundixe dauketzue.

Bai, konpetentzia haundixe dau, baiñe geuk ezin dou horren kontra gauza haundirik egin. Egin geikena da ahalik eta gehixen saldu, eta aurrera jarraitu.

Konbenzidu Euskaltelera pasetako.

Fibra optikue dauen lekuetan oferta zabala daukou: telebisiñue, etxeko telefonue, Internet eta poltsikoko telefonue, dana pakete baten. Laster telebisiño dana digitala izengo da, eta Euskaltelek debalde jarten dau horretarako biherrezkue dan aparatue. Etxeko telefonuei dagokixenez, Euskaltelekin deiketie bestiekin baiño merkiaue da; hor ez dau gehixau esan biherrik, eta Interneten be oso oferta ona daukou.

Eta poltsikoko telefonuen gainien?

Oin ez daukou promoziño berezirik, baiñe bestela be, telefonuetan oso oferta zabala daukou, oso prezio onien. Eta, promoziñuek sekulakuek izeten die. Holakuek, baiñe, Gabonetan, Aste Santuen eta udan eukitten dou.

Ze dauketzue hobeketako?

Ondiokan ez daukou hirugarren generaziñoko telefonorik, baiñe France Telecom etxiek hartu dau Amena, eta pentsetan dot laster hasiko diela horrekin. Jentiek, baiñe, ondiokan ez dau holakorik eskaketan.

Fibra optikue Mondraguen, noixko?

Inguruko herrixetan daueneko sartu daue, eta Mondragueko leku batzuetan be bai, San Andresen eta beste auzo batzuetan. Herri danieli jarteko baimen batzuen zain egon die, baiñe pentsetan dot



X.U.

"Fibra optikuekin oso oferta ona daukou, eta Mondraguen be jarriko daue"

poliki-poliki hasi diela barriro be.

Ze da zuon laneko gauza onena?

Dendan lanien ibillite jente mordue ezaguketan doule. Eta horrekin batera, lanbide honetan egunero ikesten doule zoezer. Hasieran, Interneteko kontuek errespeto apur bat emuten euen, eta asko dakixen jentie etorten zaniel... Baiñe ikastaruetara eta holakuetara jueten gare, eta gauza mordue ikesi dou.

Eta txarrena?

Dendako ordutegixe. Egixe da, baiñe, atsalderen bat libre eukitten dotenien ze egin jakin barik ibiltten nazela. Egixe da, baita be, klienteren bat hasarre etorten

"Etxeko telefonuei dagokixenez, Euskaltelekin deirek merkiauek die; hori holaxe da"

danielen ez dala bape agradable izeten, eta geuk aurpegi ona ipiñi biher izeten dou, gainera.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Balnearixo bat-edo. La Perla moduko bat Mondraguen eukittie izengo litzake...

Eta ze dauko ona?

Herrixen dauen parkiek; Monterron asko gustetan jat.

Ze falta jatzu zeuri?

Opor gehixau.

Eta ze dauketzu sobran?

Karakterra.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

El imperio del fuego / El código Da Vinci / La Fuga.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Baltzategi

Norvegiara / 2005eko udan.

Jon Baltzategik eta Garikoitz Herizek 21 egun egin dituzte Norvegiara, eta ondo dakite kostako zaiela berriro ere horrelako oporraldi bat errepikatzea. Koadrilako Iñaki Etxebeste bisitatzera eta lurralde hura ezagutzera joan ziren hara. Iñakik urteak egin ditu Norvegiara; lehenengo Biologia ikasketak egiten, eta gero hango enpresa batean lanean, turistei baleak erakusten: "Iñakiri eskerrak emateko aprobetxatu gura dut, hari esker diruarekin ordaindu ezin daitekeen oporraldia izan dugulako", esan digu Jonnek. "Bi zati-tan banatuko nuke bidaia. Lehenengo, iparraldean egin genituen 15 egunak, eta gero, hegoaldean egin genuen astea.

Arrasatetik Norvegiako iparraldean dagoen Tromso herrira joan ziren zuzenean: "Inakiren lagun Manu donostiarrarekin igaro genuen lehenengo eguna, eta ederto portatu zen gurekin. Herria erakutsi eta museo polarrera eramantzen gintuen. Gauean hartu genuen Andenesera eramango gintuen itsasontzia. Gaua izanda ere, argitasuna zegoen, eta Gari eta biok ahal genuen beste egon ginen esna, itsasontzitik ikusten genuen parajea ederra zena."

Andenesen Iñaki joan zen euren bila, lanetik irten da: "Hortxe hasi zen gure benetako bidaia. Han lan egiten duenez, Iñakik lagun mordoa ditu, eta *aurpegi galanta* daukanez, behar duen guztia lortzen du". Hala, Andenesera iritsi orduko, Jon eta Iñaki motordun txalupa batean zeuden, itsas txakurrak ikusteko bidean: "Txalupa hark 50 zaldiko indarra zuen, baina beste batean Iñakiren lagun batekin joan ginen 90 zaldiko txalupan, eta hilabete egin nuen sorbaldako minarekin. Zodiac-etik uretara bota gura gintuen, eta ia lortu zuen". Itsas txakurrena izan zen lehenengo ikuskizuna: "Sekulakoa izan zen, animalia haiek gure aurrean, eta ez geunden zoologiko batean. Hasieran beldurtu egin ziren, baina motorra itzaltzarekin batera burua ateratzen zuten uretatik, kuriositatez". Jarraituko du.



"Hasteko, eskerrak eman behar dizkiogu Iñakiri"

XABIER URTZELAI



Gari eta Jon, zodiac-ean itsasora sartu aurretik.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsoneri laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50Pando
ErrotuloakGipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)

Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak

JAIK / Maritxu Kajoi 2005

Aspaldian ez bezala itxaron behar izan dugu Maritxu ospatzeko, urriak 7 egin arte

XABIER URTZELAI

Arrasatearrek eta arrasatear ez direnek zazpi egun itxaron behar izan dituzte urrian Maritxu Kajoi ospatzeko. Txikiteroen ama birjina erregu eske ibili da, baina azkenean iritsi da jai. Eguneroko arropak etxean utzi, eta kaleak traje eta soinekoekin betetze-ko ordua da.

Joan den domekan Aretxabaletan egindako jaitik errekuperatu ezinda ibili da bat baino gehiago, eta dagoeneko iritsi da trenaren hurrengo geltokia: Maritxu Kajoi. Ile-apaindegiak hustu eta jatetxeak beteko dira ordu gutxi barru, koadrilan bazkaldu edo afaltzeko (bakoitzaren gustura). Bazkaltzeko aukera egin dutenek afaltzera joango direnek baino alaiago egingo diote lore eskaintza Maritxuri (20:30ean). Ordurako jaiaren murgilduta ibiliko dira asko, eta beste asko orduan hasiko dira motorrak berotzen, lehenengo txikitoekin.

POLONIAKO GARAGARDOA?

Beneditino XVI.a txosnako garagardoa bedeinkatzera etorriko ei dela-eta, bere jaioterriko garagardoa egongo den susmoa dago. Hala bada ere, kontuz. Nahiz eta bedeinkatuta egon, neurria galduz gero biharko ajea ez dizue-eta inork barkatuko.



ARRASATE PRESS

Urtero moduan, 20:30ean koadrilek urte osoko parrandak eskertzeko eta gau horretarako zortea eskatzeko lore eskaintza egingo diote Maritxuri.

Maritxu Kajoi eguneko egitaraua

URRIAK 7, egubakoitza

08:00: Etxafleru burrundarie.

12:00: Udalatx barruen egin dien bodegen inauguraziñue Juan Carlos I.aren eskutik (zertarako uste zauen zala zulu ba?). Horren ostien, arda balza baltzandako ugari.

17:00: Kale animaziñue, danon gozagarri, Auskako taldearen eskutik.

18:00: Trikitilariek dantzan jarriko dittue gure hankak Alde Zaharretik ziherrak.

19:00: Herriko erraldoi eta kilikiek Arrasateko gaiteruen laguntziekin kalietako hautsak harrotuko dittue.

19:30: Musika ugari erdialdeko kalietan Maritxun txarangien eskutik, Txumaien zuzendaritzapeien.

20:30: Urte osoko parrandak eskertuko eta

gaberako zorte ona eskatzeko, herriko koadrilek Maritxuri egindako lora sorta eskaintza.

00:00: Dantzaldixe Seberon Kiñu taldeak. Ordu berien, Plazan trikiberbenie Iratxo taldeen eskutik.

01:00: Beneditino XVI.ak txosnetako zuriterak bedeinkatuko ditu. Gero, "fumata blanca", Monterronen.

**Garagardoa
bedeinkatuta egonda
ere kontuz, biharko
ajea ez dizue-eta
inork barkatuko**



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Erretiratuen abesbatza sortu gura dute, abenduan ikuskizuna egiteko

IKER BARANDIARAN

Debagoieneko erretiratuen elkarteak erabaki zuen aurten go Gipuzkoako Erretiratuen Abesbatzen Topaketa Arrasaten egitea. Horrekin batera, Debagoieneko erretiratuen presidente Jose Riviereri bururatu zitzaion Arrasateko lau elkarteak batuta abesbatza sortzea.

Iaz, Gipuzkoako erretiratuen batzar baten, Debagoieneko erretiratuen presidente Jose Rivierek proposatu zuen 2005eko Gipuzkoako Erretiratuen Abesbatzen Topaketa Arrasaten egitea. Azkeneko sei urteotan hainbat herritan egin dute, baina ez dute inoiz gure ibarrean egin. Arrazoi horregatik, ontzat hartu zuten debagoiendarren proposamena.

Abesbatzen topaketa horiek abenduan egin ohi dituzte. Debagoieneko elkarteak topaketak non egin aztertzen hasi zen, eta erabaki zuten Arrasaten egitea. Amaia Udal Antzokiak baldintza onenak betetzen dituelako.

SANTAMASETAKO EGITARAUAN

Kokapena erabaki ondoren, erretiratuak Arrasateko Udaleko Kultura Sailarekin harremanetan jarri ziren. Kultura Saileko zinegotziak eta teknikariak, Ines Aldaik eta Jon Garaik hurrenez hurren, oso ondo hartu zuten eskaintza. Are gehiago, abenduaren 20an egitea erabaki zuten, eta hala, Santamasetako egitarauaren barruan sartzea erabaki zuten.



Hainbat erretiratuk abesten dute elizako abesbatzan, Goikobalun...

ARRASATEN, ABESBATZA SORTU

Guztia lotuta zutenean, Jose Riviere konturatu zen Arrasaten ez dagoela abesbatzarik. "Harri-

garria da! Herrian oso ahots onak daude, abesbatzak ditugu, zartzuelak egiten dituzte..., baina ez daukagu erretiratuen abesbatzarik". Horregatik, herriko erretiratuen lau elkarteak batuko zituen abesbatza sortzea erabaki zuen. David Artzamendik zuzendari lanak egiteko konpromisoa hartu zuen, eta deialdia zabaldu dute. Esku hartzeko baldintza bakarra da erretiratu edo pensioduna izatea.

Abesbatzak lau kantu abestu beharko ditu, horietako bat Gabonekin lotuta.

*Esku hartzeko
interesa dutenek
Abaroara edo David
Artzamendirengana
jo beharko dute*

LABUR

Uribarriko erretiratuen elkarteak Aldeanueva de Ebroa (Errioxa) txangoa egingo du

Urriaren 19an 08:00etan herritik irten eta 11:00ak aldera Aldeanueva de Ebro herrira helduko dira, eta Bodega Cooperativa bisitatuko dute. Horren ostean, eliza nagusia, alde zaharra eta azoka ikusiko dituzte. 14:00etan, bazkaria izango dute Venecia hostalean. Bazkalostean, dantzaldia eta zozketa egingo dituzte. Hilaren 17an egingo dute izena emango dutenen arteko zozketa. 20 euro ordaindu beharko dituzte.



Abaroakoek, Malgrat de Marrera bidaiaria

Abaroako lagunak Malgrat de Marren (Bartzelona) izan ziren irailaren 10etik 24ra bitartean. Guztira, 103 lagunek egin zuten bidaiaria, eta oso ondo pasa zuten. Malgrat de Marren egonaldia egiteaz gainera, hainbat txango egiteko aukera izan zuten: besteak beste, Nuriako harana (irudian), Montserrat, Roses, Pals, Girona, Ampurja Brava, Bartzelona eta Codorniu fabrika ikusi zituzten. /I.B.



Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06




UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean




- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



EZETZASMATU



MIKEL LUPIAÑEZ

Non dago argazkian ikusten duzuen eskultura hori?
Arrastoa: ez dago erdigunetik askorik aldendu behar hura ikusteko.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Baque kafe ehoa
Naturala edo nahasketa 250 g

1,45 € 241 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER BERGARETXErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asier!
Galderen erantzun zuzena:
Portaloian.

ARRASATEKOHISTORIA


Arantzazuko eliza berria egiten hasi zirenekoa

'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU'

Oñatiko udalerrian dago Arantzazu. Hala da. Baina, Euskal Herriko beste askok bezala, arrasatear ugarik bereziki maite du basilika hura, lekua bera, haren esanahia eta haren historia. Horrexegatik, argitaratu berri duten liburua aprobetxatu eta Arantzazu izango dugu berbagai zenbait kapitulutan. Basilika zaharren gaineko kontakizunekin hasiko dugu saila:

"1834ko abuztuaren 18tik 19rako gau partean Anselmo de Iñurrigarroren mikeleteek erre zuten Arantzazu, Rodil Jeneralaren aginduz. Baina laster berreraiki zuten santutegia. Biaurretako Klaratarren bikario Frantzisko Ortueta aita ahalegindu zen, sutea gertatu zen urte berean. Edozelan ere, hamar urte geroago hasi ahal izan zituzten berreraikitze lanak. Azkenean, 1846ko azaroaren 18an bedeinkatu zuten, eta irudiaren translazioa hurrengo egunean egin zuten.

Beti uste izan da berreraikitze hura umila, xumea eta apala izan zela. Baina, batez ere, eliza txiki geratu zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran Euskal



'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU'

Eliza zaharraren barrualdea, 1891n ipinitako erretaula berriarekin; aurrekoa Elantxobeko parrokiara eraman zuten.

Herri osotik joaten ziren milaka erromesendako.

Santutegiaren bizitasun horren irudi izan ziren zenbait gertaera: errepide berria (1881); oin berria zuen komentua eraikitzea (1884; frantziskotar komunitatea komentu berrira pasa zenean,

*Elizaren obrak
1920ko ekainean
hasi zituzten; lehen
harria irailaren
19an ipini zuten*

1909an, Kolegio Serafiko berri bilakatu zen); irudiaren koroatze kalonjea (1886); Gipuzkoako Patronatua (1918); tenpluaren kotsakrazio solemnea (1919); Arantzazu aldizkariaren sorrera (1921eko maiatzaren 15); Benedicto XV.ak Basilika txikiaren titulua eta duin-

tasuna eman zion (1921eko abenduaren 14) eta Basilikan erreztatzen zutenei indulgentzia plenarioaren kontzesioa Pio XI.aren eskutik (1922ko ekainaren 20a).


Frantziskotarrak, komentuarren zaindarien gidaritzapean, ahalegindu ziren sortzen zebiltzan behar berriei erantzuten. Lan horretan nabarmendu ziren Jose Esteban Epelde aita, eta frai Luis Arrue, erakutsi zuten izpiritu ekinztailerengatik, inizatibarengatik eta espazioak (eliza, ostatua) erromesen mesederako edertzeagatik.

Hala, 1920an, santutegiaren esanahi eta garrantziak eragindako euforiarekin eliza handitze-ari ekin zioten. Estilo neorromaniakoa zuen proiektuak eta F.J. Alonso y Martosek idatzi zuen. Eraikitzailea Enrike Uriarte izan zen; hura hil zenean, 1923an, seme Atoniok hartu zuen haren lekua".

Obrak, berriz, 1920ko ekainaren 11n hasi zituzten. Lehen harria 1920ko irailaren 19an ipini zuten. Ordurako jakinekora zen obraren finantzaketaz Pablo Ruiz Gamiz oñatiarra arduratuko zela, Torre Antiguako kondea. Aita Leonar-do Zelaiaren lekukotasunaren arabera, alaba mirariz osatu zela-eta, Pablo konprometitu egin zen absid berri bat ordaintzera, Birjina-ren gelatxorako.

MARITXU KAJOI

05



ADI, PREST...PUM!

BA DATOZ MARITXUAK, GIRORIK HOBERENA
JARTZEKO PREST GAITUZU:

Bengoa • Basati • Boliñete • Irati • Itzala • Biona • Lora •
Rumba • Jai Zale • Branka • Amets • Monte • Gure Leku

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a

395. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Erretiratuen egunarekin herriko edadekoak omenduko ditu Udalak

MIRARI ALTUBE

Urriko lehen zapatuan ospatu ohi du Udalak Erretiratuen Eguna, eta halaxe egingo du bihar, urriak 8. Meza entzun ostean bazkari bikaina eskainiko diete kirol etxean, eta dantzaldia eginda bukatuko dute eguna herriko edadetuek. Opariekin itzuliko dira guztiak etxera.

Ezin hutsegiteko moduko hitzordua daukate herriko edadetuek bihar. Urtero elkartzen dira 300 bat erretiratu, eta egun pasa bikaina egiten dute, Udalak antolatuta.

BAZKARI GOXOA

Salda beroa hartuta hasiko dute eguna edadetuek. 12:30ean meza izango dute parrokiaren eta horren ostean bazkaltzera hurreratuko dira kirol etxera. Euskaldunok mahaiaren bueltan egiten ditugu ospakizun guztiak, eta bazkari ederra antolatu diete: barazki menestra, pikillo piperrak, mihi-arraina almendra saltsarekin eta bildots errea. Tarta izozkiarekin jan eta gero kopatxoa hartu eta purua erretzen ere utziko diete.

Bazkaria ederra, baina bazkalostea ez da gutxiagorako izango. Juan Luis Lekunberriren taldeak giro tuko die eta dantzari bikainak direla erakusteko aukera izango dute. Eguna bukatzeko zozketa egingo dute, eta urtero moduan opari bikainekin itzuliko da bat baino gehiago. Gainera, inor gera ez dadin ezer barik, guztiei banatuko dizkiete opari txikiak.



ARTXIBOA

Herriko 300 bat erretiratu elkartuko dira kirol etxean bazkaldu eta dantzan egiteko.

Barazki menestra, piperrak, mihi-arraina eta bildots errea jango dituzte bihar erretiratuek

HERRIKO NAGUSIENAK

Herriko nagusienekin ere gogoratzen dira Udaleko ordezkariak, nahiz eta ospakizunera ez etorri. Aurtengo nagusienak 98 urte dituen Joaquín Barbero Sanchez eta 99 urteko Gregoria Larrucea Basaras dira. Bien urtebetetze

Nagusienak 98 urte dituen Joaquín Barbero eta 99 urteko Gregoria Larrucea dira

egunak, gainera, abenduan dira, eta Gregoriak 100 urte beteko ditu Gabon egunean. Opari bereziak jasoko dituzte biek, bihar; Joaquinek Urats-Gain zaharren egoitzan -iaz ere jaso zuen gizonetzko nagusiena zen- eta Gregoriak etxean.

Zabalik dago gaztelekua gaurtik Iralabarri plazan

M.A.

Gaur, urriak 7, egin dute gaztelekuaren inaugurazio ekitaldia. Gazteak Iralabarri plazara hurreratzeko, ekintzaz betetako arratsalde pasa antolatu dute Gazteria Saileko ordezkariak: merienda, superjumping eta arku tiroketa. Gaztelekua zabalik dago aste-buru eta jaiegun guztietan.

Herriko gaztetxoek, 12 eta 17 urte bitartekoek, badaukate non egon hemendik aurrera. Aste-buru, jaiegun eta opor garaian zabalik izango dute gaztelekua 16:30etik 20:30era bitartean.

HEZITZAILE BIREN ARDURAPEAN

Gazteen gaineko azterketa egin zezala eskatu zion Udalak Foru

Aldundiari. Azterketaren arabera nerabezaroari dagokion adin tartea zen beharrik handiena zuena Aretxabaletan. Hala, gaztelekua abian jarri eta 12 eta 17 urte arteko gazteendako egonlekua antolatu du.

Hezitzaile bi egongo dira gaztelekuan. Gidari lanak egingo dituzte hezitzaileek, baina ez gehiago; izan ere, gazteak eurak izango dira ekintzak antolatu eta aurrera eroango dituztenak. Telebista bat eta prentsa izango dituzte eskura, eta hainbat txoko egin dituzte gazteak eroso egon daitezzen. Hala, puf delakoekin osatutako egonlekua eta jolas egiteko sei mahai jarri dituzte.

Oraindik ez dauka izenik Iralabarri plazako gaztelekuak, baina laster ipiniko dizkiote bai izena, bai logotipoa.



M.A.

Hainbat txoko ditu gaztelekuak, gazteak eroso egon daitezzen.

aretxabaletako
gaztelekua
urriaren 7an, arratsaldeko 5etan

Gazte! 12-17 urte artean badituzu,
orain baduzu zure txokoa Aretxabaletan!

Etorri ostiralean Gaztelekuaren irekiera festara!



Merienda handia

Gaztelekua ikustea

Musika

Superjumping

Arku tiroketa

Jokoak



FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 14
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirrol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Garteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrakio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arasate 943 79 14 39

LARRIALDIK
SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gohria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domeketan: 12:30.

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30.

IKASTAROAK

Eskulan, puntu eta antzerki ikastaroak antolatu ditu Loramendik

M.A.

Ikastaro garaia hasiera doa Loramendi Euskara Elkartearen eskutik. Eskulanak, puntu-lanak, kakorraz-lanak eta bainika ikastaroa dauzka eskuak erabili gura dituenak lanerako, eta antzerki ikastaroa gorputza lantzeko. Guztiak izango dira udaletxe zaharrea.

Urria aurrera doa eta udazkenarekin batera ikastaroen ikasturtea hasiko du Loramendi EEk. Izena emateko etorri udaletxe zaharrera, Loramendi EEren lokalera, arratsaldetan.

ESKULANAK

Eskulan ikastaroak martitzen arratsaldetan, 18:00etatik 20:00etara emango ditu Rosa del Aguila irakasleak. 30 orduko ikastaroa da, eta panpinak, margolanak eta beste hainbat lan egiten erakutsiko die bertaratutakoei. Urriaren 18an hasiko dituzte eskolak.

Kakorraz eta puntu-lanak, bainika eta pachtword egiten irakasteko Blanka Perea etorriko da


Antzerki ikastaroa emango du Trilkimailu taldeak, gazteendako, astelehenetan

udaletxe zaharrera eguztenetan, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro horrek ere 30 ordu iraungo du eta urriaren 19an hasiko dute.

Antzerki ikastaroa, ostera, astelehenean, urriak 10, hasiko dute. 12 eta 16 urte arteko gazteendako da eta Trilkimailu talde aretxabaletarrak emango du. Lau astelehenetan izango dira eskolak, alegia, urriaren 31 arte, 18:00etatik 19:30era bitartean.

BERTSO ESKOLA

Leintz Bertso eskolaren eskutik Aretxabaletan ere bertsoak lantzeko ikastaroa eman gura dute. Gaztetxoendako dira eskolak, 9 eta 11 urte bitartekoendako, eta urrian



Besteak beste, panpinak margotzen erakutsiko du Rosa del Aguilak.

hasi eta ekaina bitartean emango dituzte. Ikastetxeetan zabalduko dute izena emateko epearen berri, ordutegia zehazten dutenean.

Beste ikastaro bi ere emango dituzte hemendik eta Gabonetara

bitartean: txalaparta eta sukaldaritza ikastaroak.

Bestalde, aipatu San Migel jailetan zozketa egin zuela Loramendi EEk bazkideen artean, eta afaria Alaitz Errastirendako izan zela.

FOTONOTIZIA



Jaia pasatu ostean garbitu egin behar

Kilometroak jaia pasatu da eta jai erraldoiak hondar ugari utzi zituen herriko bazterretan. Udalak garbitzeko zerbitzua indartu zuen eta 4.000 euro zehaztu zituen. Kilometroetako gunee eta ibilbidea garbitzeko, ostera, boluntarioak eta ikastetxeetako ikasleak etorri ziren. Ibarako gunean sortutako lokatza ia herri guztira zabaldu zuten oinetakoek eta nahiko lan izan zuten garbitzen. Desmuntatze lanak, ostera, aste guztian egin dituzte. /M.A.

LABUR

Bake epaile izateko izena eman daiteke udaletxean

Udalak bake epailea hautatu behar du ondorengo egunetan. Hortaz, bake epaile izan gura duenak hurrengo lau urteotan eman dezala izena udaletxean. Baldintza bakarra dago: 18 urte beteta izatea. Izena emateko epea urriaren 28an bukatuko da. Udalbatzarrak hautatuko du gero bake epailea aurkeztutako lagunaren artean.

Bake epailearen eginkizunen artean daude: ezkontza zibilak zuzentzea, agiriak sinatzea eta adiskidetzegintzak gidatzea.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

IRIARTE

Umeen denda



Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.943 77 00 33/79 42 56

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 88 95

Kadete mailako bikote bi dabilta jokatzeko Gipuzkoako Txapelketa

M.A.


Irailaren 17an hasi zuten Gipuzkoako Pilota Txapelketa eta Aretxabaletako bost bikote dabilta jokatzeko. Hiru bikote senior edo helduen mailan dabilta, eta beste biak kadeteen mailan. Azken horiek lehenengo aldiz jokatzeko dute txapelketa.

Hasi besterik ez dute egin Gipuzkoako Txapelketa, baina dagoneko jokatu dituzte lehenengo partiduak norgehiagoka gogorra izango dela jakiteko. Txapelketa luzea da; orain liga erara jokatzeko dabilta eta onenak finalurrekoetara pasatuko dira.

HIRU SENIOR ETA BI KADETE

Kadeteen bigarren mailan Unai Gardoki eta Joseba Akizu dabilta jokatzeko. Orain arte partidu bakarra jokatu dute, eta irabazi. Kadeteen hirugarren mailan, oster, Aitor Uribarrenek eta Gorka Perez de Labeagak osatutako bikotea dago, eta galdu egin zuten aste bukaeran zumaiarren aurka, 13-22.

Seniorren lehenengo mailan Errasti anaiak dabilta. Lehen partidu galdua hasi zuten txapelketa, baina joan zen aste bukaeran



Aurten senior mailako hiru bikote eta kadete mailako bi dabilta jokatzeko txapelketa.

elgetarrei irabazi zieten 22-20. Seniorren bigarren mailan Lasagabaster eta Alzola daude, eta azken partidu galdu egin zuten ordiziarren aurka, 10-22. Seniorren hirugarren mailan, bestalde, Uriarte eta Oion bikoteak jokatzeko du, eta hauek ere galdu egin zuten azpeitarrren aurka, 9-22.

HURRENGO HITZORDUAK

Domekan, etxean, jokatu dituzte partiduak bi bikote: Uribarren eta Perez de Labeagak Alzako bikotea izango dute aurrez aurre, eta Errasti anaiak Añorgako pilotariak. Iturrigorri frontoian izango dira, 11:30ean hasita. Beste bikoteak kanpora joango dira jokatzera.

Kadeteen lehenengo mailako taldeak partidu guztiak irabazi ditu

M.A.

Aretxabaleta Kirol Elkarteak kadeteen lehenengo mailako taldeak bikain hasi du denboraldia. Hiru partidu jokatu eta guztiak irabazi ditu. Joan zen aste bukaeran, gainera, hamaika gol sartu zizkion Urrietako taldeari. Lehenengo dago Elgoibarrek berdinuta.

Bixente Calzonek gidatzen duen taldeak ezin hobeto hasi du denboraldia. Partidu guztiak irabazi ditu, baina ez hori bakarrik,

hiru partidutan 22 gol sartu dituzte mutilek, azken partiduan 11, eta aretxabaletarrei ez diete bakar bat ere sartu.

Hurrengo partidu etxean jokatu du, bihar, zapatua, 16:30ean, Ibarra futbol zelaian, eta Mutrikuko taldea izango du aurrez aurre. Mutrikuarrek ez dute horren ondo hasi liga eta oraindik ez dute partidurik irabazi. Hortaz, puntuak hartzeko gogoarekin etorriko dira. Partidu polita izango da, Aretxabaletako mutikoez zela jokatzeko duten ikusteko.

PREFERENTEA, PASAJESEN AURKA

Preferentean jokatzeko duen taldeak, oster, Pasajes izango du aurrez aurre domeka honetan, Ibarra. UDAko taldeak partidu bakarra galdu du eta bosgarren postuan dago 10 punturik. Pasajesek 11 puntu ditu eta laugarren postuan dago. Hortaz, talde biek pareko indarrak dituzten seinale. Dena dela, ikusi egin behar domekan zer egingen duen bakoitzak. 16:30ean hasiko da partidu, eta aretxabaletarrek eskertuko dute zaleen berotasuna.

LABUR

Fran Miguelek berdindu egin zuen Iñigo Argandoñarekin eta lehenengo jarraitzen du

Partidu erabakigarriak zituzten Fran Miguel eta Aitor Alcaidek joan zen egubakoitzean Arrasateko Xake Txapelketan. Franek Iñigo Argandoña donostiarra izan zuen aurrez aurre, eta berdindu egin zuten. Hortaz, sailkapenean ere lehenengo postuan jarraitzen dute biek, berdinduta. Franek 4 puntutik 3 eta erdi eskuratu ditu orain arte.

Aitor Alcaide, bestalde, Miguel Navaroren aurka aritu zen eta galdu egin zuen. Hala, 2 puntu eta erdi ditu Aitorrek. Domekan, urriak 9, txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu dute, eta oso garrantzitsuak izango dira eskuratutako puntuak, hurrengo astean, urriaren 14an bukatu egingo delako txapelketa.

Trialsineko Euskadiko Txapelketa jokatzeko dabilta hainbat aretxabaletar

Trialsineko Euskadiko Txapelketa aurrera doa; hala, laugarren jardunaldia jokatu zuten joan zen domekan Amurrion. Hainbat aretxabaletar dabilta jokatzeko, hainbat mailatan: infantilen mailan, Markel Uriarte; alebnetan, Aitor Murua; hasiberrietan, Iker Mendikute eta Unai Zuntzunegi; eta emakumei dagokien, Itziar Murua eta Oihane Aldai. Aipatutako guztiak ez dira jardunaldi guztietara joan, baina probaren bat edo beste jokatu dute. Gainera, ez dituzte batere emaitza txarrak izan, nahiz eta gero eta proba zailagoak izan, batez ere infantilen mailan. Hurrengo jardunaldia domekan da, urriak 9, Lezon, eta beste bi gelditzen zaizkie trialsineko txirrindulariei txapelketa bukatzeko.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Pasajes

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Arizm.-Tolosa

Infantil txikiak.

Domeka. 10:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Alza

Kadeteak.

Aretxab. - Añorga

Domeka. 11:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Orioko 2 UDA 2

Preferentea.

UDA 5 Eibartarrak 0

Bigarren mailako erregionala.

UDA/Arizm. 2 Bergara 2

Ohorezko gazteak.

San Ignacio 0 UDA/Arizm. 2

Lehen mailako gazteak.

Urnieta 0 UDA/Arizm. 11

Lehen mailako kadeteak.

UDA/Arizm. 1 Ilintxa 2

Bigarren mailako kadeteak.

Real Sociedad 3 UDA/Arizm. 0
Infantil txikiak.

UDA/Arizm. 1 Antiguoko 6

Ohorezko infantilak.

Gasteiz Cup 0 UDA/Arizm. 0

Emakumezkoen liga (seniorrak).

Urki 4 UDA/Arizm. 1

Emakumezkoen liga (kadeteak).

UDA 3 CB Tribuna Norte 3

Areto futbola.

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Kilometroak egunien lanien jardun zeuen; ze moduz joan zan egune?



JONE ARENAZA
Bokadilluen txosnie



XABIER BASABE
Señalizaziñue




IDOIA ELEXPURU
Guneko arduradune



JOSU ANTIXIA
Edarixen txosna/segurtasune



IRAIA AGINAGALDE
Bokadilluen txosnie



JULEN GARCIA
Trafikue

Bokadilluek egiten ibilli nitzen Copreciko txosnan. Eguardi inguruen eta illunkaran jente asko euki geuen. Egin euskun eguraldireko jente asko etorri zala pentsau jaten.

Zapatuen jarri eta domeka gabien kendu gittuen seiñaliek. Talde danek egin euen oso ondo lan: boluntarixoz izugarri euzen lan egitteko goguez, eta gune guztixek oso ondo funtzionau euen.


Arkarazoko gunetik 10:30ek inguruen hasi zan jentie pasetan, eta ez geuen bape arazorik euki. Boluntarixuek lan eta lan ibilli die; ez dakit nik halako talderik beste iñun topauko geukenik.

Lan haundixe egin geuen Ibarako gunien, eta eskerrik asko lagunketan etorri zien danei. Esan, gaiñera, litronekin datozenak eta bandalismue ez diela nahastu biher Kilometruekin.

Goixien, lelengo orduen batabestiei begire egon gitzen, eta egunek aurrera egin ahala boladak euki gittuen. Bestelakuen, Urkulun kontzierto bat entzutie zoragarrixerrixe pentsau jaten.

Goiz partien egon nitzen zainketan herrixen autorik sartu ez zein, eta jentie oso ondo portau zan. Gera tu geuen auto danek egin euskuen kasu, eta ez geuen bape arazorik euki.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BOLUNTARIOAK Kilometroak jaia antolatzeak lan handia eskatu du bai aurretik, bai egunean, bai ondoren. Lan horiek, gehienak, boluntarioek egin dituzte. Egunean bertan 1.500 inguru ibilli ziren geratu ere egin barik: batzuk egun guztian, beste batzuk baldintza benetan eskasetan... Baina guzti-guztiak gogotsu, edozein lanetarako gertu eta umore ona galdu barik. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Etxabeetan etxebizitzak egiteko azterketa

Udalak herriko etxabeetan etxebizitzak egiteko azterketa egin eta txostena jarri zuen ikusgai. LKS aholkularitza zerbitzuak egin zion lana, eta etxabe guztiak zenbaitu ostean etxebizitza bihurtzeko aukera zutenen zerrenda atera zuen. Ordenantza erregulatzaila ere idatzi zuen Udalak.



ASTEKODATUA

4.000

EURO ERABILI DITU UDALAK GARBIKETA LANAK EGITEKO

Urriaren 2ak herrian utzitako zikinkeriak garbitzeko 4.000 euro aurreikusi zituen Udalak. Ibilbide eta guneetako garbitasun kontuak Kilometroak taldearen ardura izan ziren.

BESTEKEESANA


Normalean, gaitz honek hogeitak bete eta handik puska batera erasotzen gaitu. Gure gizarte

ordenatu hau bikoteka bizitzeko antolatuta dago: ezkontza, etxebizitza, familia eredu, seme-alabak... Bikotea izatea beharrezko baldintza dela sinestera heldu gara, eta ondorioz, denok bikote hori bilatzeko ahalegina egin behar dugula. Badirudi, zoriontsu izateko, ezinbesteko baldintza dela bikotea izatea.

Jaiotzen garenetik, zintzoak, politikak, kirolari onak eta argiak izaten erakusten digute. Eta askotan, esperantza izaten dugu prestakuntza honek guztiak bikotea aurkitzen erraztuko digula. Logika horren arabera, denok bikotea izan gura dugu, eta bikoterik ez duenak, ezin duelako izango da. (...)

LARRAITZ ARANDO
Gaztetxulo/05-10-07

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Biktima guztiak berdinak?

Bakegintza eta normalizazioa bilakatu dira mintzagai nagusi azken aldi honetan, eta biktimak ardatza. Egunkarietako orriak eta orriak eskaintzen zaizkie. Irrati, telebista zein parlamentuetako ordu mordo. Omenaldiak antolatzen dira, diru laguntzak onartzen...

Giza sufrimenduak sakonki ukitzen omen ditu gure politikariak, eta jakina, sufrimendu hori leuntzeko edozein egiteko gertu daude. Hori bai, ezinbesteko baldintza bete behar dute biktimiek, atentzio hori merezi izateko: ETaren biktimak izatea, hain zuzen ere.

Batzuk behintzat sistematikoki ahazten dute hemen beste biktima asko daudela. Batzuk gatazkaren ondorio zuzenak (talde polizial edo parapolizialek erailldakoak, torturatuak, sakanaturiko presoak eta senitar-tekoak), eta beste batzuk gatazkarekin harremanik ez dutenak.

Azken hauetako batzuk ekarri nahi nituzke gogora gaurkoan. Azken urteotan ETak baino

hildako gehiago erakarri dituzten bi eragile hain zuzen ere.

Batetik genero bortizkeria bezala ezagutzen dena. Hau da, emakumeek, emakume izateagatik soilik pairatzen duten biolentzia. Normalean euren bikotekideen aldetik gainera. Ia egunero izaten dugu erasoren baten berri (eta hori gehienak, oraindik ere, isilpean gelditzen direla), baina hala ere, askorentzat hau arazo pribatua da, domestikoa. Ez dago, beraz zer eginik. Ezin du inork muturrik sartu.

Beste eragilea, lan "istripuena" da.

Aurten bertan 50

langiletik gora hil dira euren lan tokian. Baina jakina, izenak berak dioen bezala "istripuak" direnez, zer egingo dugu ba?

Badakit gai hauek ez direla errazak, baina ziur naiz beste biktima batzuei eskaintzen zaien beste esfortzu eskainiz gero, aurrerapauso handiak egin litezkeela. Baina antza denez, maila ezberdineko biktimak daude. Eta jakina, hauen errentagarritasun politikoa txikia da besteekin konparatuz gero.

"Aurten 50 langiletik gora hil dira lan tokian. Baina jakina, izenak berak dioen bezala "istripuak" direnez, zer egingo dugu ba?"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAN
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleto
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a / 225. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Argazkien eta edadetuen testigantzen bitartez herriko historia jasotzen dabilta

IKER BARANDIARAN

Udaleko Kultura Sailak ia 500 argazki batuta zituen identifikatu eta katalogatu barik. Horri irtenbidea emateko, beka bat atera zuten. Leire Parra arrasatearra ibili da argazkiak katalogatzen, informazioa batzen eta adinduen testigantzak jasotzen.

Orain dela 14 bat urte, Eskoriatzako argazkilari taldeak eta Udalak lehiaketa bat antolatu zuten. Herriko umeei eskatu zieten etxetik argazki zaharrak hartu eta udaletxera eramateko, zozketa-tutako sarien truke. 400 argazki baino gehiago lortu zituzten, eta udaletxean egon dira orain arte. Joan den urtearen bukaeran, Udaleko Kultura Sailak erabaki zuen argazki horiek katalogatzea eta horien gaineko informazioa batzea. Horretarako, Eskoriatza Herria II. Beka atera zuten, eta Leire Parra arrasatearrari eman zioten lan hori.

DAGOENEO, 1.087 ARGAZKI BATUTA

Lehenik eta behin, Leirek argazkiak inbentariatu eta digitalizatu egin zituen. Horrez gain, herritar taldeei laguntza eskatu zien, irudien gaineko informazioa batu ahal izateko (besteak beste, argaz-



Irudian, katalogatu duten argazkietako bat: On Luis Muxika eta herriko hainbat gaztetxo, idazmakina eta guzti.

kietan ikus daitezkeen izen-abizenak, irudiak non eginda dauden, noiz...). Bide hori erabilita, herriko hainbat lagunek argazki gehiago eraman zizkioten, eta guztira 1.087 batu ditu. Argazki bakoitzarekin fitxa bat bete du, eta datu basea osatu. Baina irudi batzuk errepikatu egin direnez, guztira 1.049 erregistro sortu ditu.

Udalak artxibo digitala egin du, eta jasotakoa herritarren artean zabaldu gura du

Irudiak gaika banatuta daude, eta 37 gai edo esparru bereiztu dituzte (aisialdia, artea, ekin-tza ofizialak, dokumentuak, erretratuak, eraikuntzak, gertaerak, garraioak, hezkuntza, jaiak, lana, eta abar). Urtarriletik uztaileira arte egon da Leire lan hori egin. Orain Udalak erabaki behar du material horri guztiorri zer

erabilpen ematen dion. Hainbat aukera aztertu dituzte: erakusketak egitea, libururen bat kaleratzea... Lehenengo helburua, behintzat, lortu dute: Udalaren artxibo digitala eratzea, hain zuzen ere. Beste aukera bat da artxibo digitala osatzen jarraitzea. Hori guztia laster erabaki eta aditzera emango dute.

EDADETUEN TESTIGANTZAK

Horrez guztiaz gain, Leire Parra 80 urteko eskoriatzarrengana jo du haien testigantzak jasotzeko. Hala, haien bidez asmoa zen herriko aspaldiko ohitura, gertaera eta kontakizunak berreskuratzea, besteak beste.

Gehienetan ezezkoa eman zioten arren, lagun gutxi batzuk elkarrizketatzea lortu zuten. Zortzi lagunekin egon zen berbetan: On Cruz Abarrategi, Andres Agiriano, Mertxe Armendariz, Jose Azkarate, Bernabe Errasti, Jose Pagaldai, Mario Padilla eta Esperanza Uribarrenekin.

Elkarrizketa horietan hainbat gai jorratu zituzten, eta oso baliagarriak izan dira iraganeko haurtzarora, jolasak, hezkuntza, lana, bizimodua, jaiak, erlijio ohitura eta ospakizunak eta bestelakoak zelakoak ziren jakiteko. Elkarrizketa horiek guztiak gordeta eta jasota daude.

Datorren astean, perretxikoen gaineko jardunaldiak

I.B.

Luis Ezeiza eskolako guraso elkarteak, urtero moduan, perretxikoen gaineko jardunaldiak antolatu ditu. Datorren asteburuan egingo dituzte, hilaren 14tik 16ra bitartean.

Dagoeneko ohitura bilakatu da sasoi honetan Luis Ezeizako guraso elkarteak perretxikoen gainean gehiago jakiteko ekintzak

antolatzea. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu gura dituzte ekintzetan esku hartzera. Datorren egubakoitzean, hilaren 14an, Laudioko Mikologia elkarteko lagun batzuek berbaldia egingo dute, diapositibekin lagunduta. Ibarraundi museoa izango da, 18:30ean. Perretxikoak identifikatu eta zeintzuk diren onak eta zeintzuk diren txarrak bereiztuko dute.

Zapatuan, hilaren 15ean, mendira irteera egingo dute.

09:00etan elkartuko dira Luis Ezeiza eskolako jolastokian eta hainbat taldetan banatuko dira perretxikoak batzeko. Ikusten dituzten guztiak hartuko dituzte, onak eta txarrak, eta izendatu eta sailkatu egingo dituzte.

DOMEKAN, PERRETXIKO DASTATZEA

Domeka goizean, hilaren 16an, perretxiko erakusketa egingo dute plazan. Horrez gain, perretxikoen eta bestelakoek dastatzea egingo da.



Ibarreko herri gehienetan egingo dituzte perretxikoen gaineko ekintzak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhaliztaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

GURASO ESKOLAK, BERTAN BEHERA

Udalak iragarritako guraso eskolak bertan behera gelditu dira, oso lagun gutxi eman dutelako izena.

AXTROKIRENAGENDA

TORTOLIS LUDOTEKAREN GAINEAN


Hemendik aurrera Axtrokik ez du ludoteka kudeatuko, lehiaketa publikoaren ondorioz.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure Zerbitzura



San Pedro auzoan jarri berri dituzten arrapalak, ailegaeraztasuna hobetzeko.

Hiriberritze plana, herrian egin beharreko hobekuntzak jasotzeko

IKER BARANDIARAN

Udala iaz hasi zen bizilagunekin batzen eta herrian egin beharreko hobekuntzen proposamenak jasotzen. Batzarrak egin ostean, 200 proposamen baino gehiago jaso zituzten. Horietako batzuk dagoeneko egin dituzte, eta egunotan proposamen gehiago jasotzen dabilta.

Iaz, Udaleko Lan eta Zerbitzuen eta Hirigintzako Sailak herriarregana jotzea erabaki zuen. Helburua zen udalerria hobetzea, eta gainera bizilagunen gustura bazen, askoz hobeto. Besteak beste, gura zuten ailegaeraztasuna bermatzea, espaloiak hobetzea, hiri-altzariak ordezkatzeko eta abar.

Hirigintza Saileko arduradunak hainbat auzotako ordezkariekin batu ziren. Horren ostean, auzo bakoitzean hobekun-

tzak aztertu eta proposamenak egin zituzten.

200 PROPOSAMENETATIK 88 EGINDA
Eskoriatzako bizilagunek 200 bat proposamen egin zituzten. Horietatik Udalak dagoeneko 88 aintzat hartu eta egin ditu; beste 27 laster egiteko asmoa dauka; eta beste 22 atzera bota ditu, teknikoki ez direlako posible edo horren gaineko interes txikia dagoela ikusi dutelako.

Dena dela, Udala oso pozik dago herritarren harrerarekin eta

*Udaleko Hirigintza
Saila egunotan
dabil bizilagunen
proposamen gehiago
jasotzen*

egunotan batzar gehiago egiten dabilta San Pedro, Intxaurtxueta, Gorosarri plaza, Olazar, Hidalgua, San Juan, Arana, Aranburuzabala eta Olaeta plazako bizilagunekin. Batzar horiek osoko bilkura aretoan egiten dabilta.

KONPONKETAK ETA GABEZIAK ESTALI
Iaztik gaur egunera arte hainbat lan eta eraldaketa egin dituzte, herritarrek hala eskatuta: hainbat kaletan arrapalak, eskudelak, markesinak, ispiluak, pibotak, eserlekuak eta abiadura murrizteko bandak jarri dituzte; galtzada-harri solteak lotu dituzte; aparkaleku-plazak margotu; zuloak estali; zuhaitzak landatu; eserlekuak eta eskudelak konpondu eta abar.

Bestalde, Udalak aurreikusita dauka epe ertainean beste hainbat hobekuntza lan egitea. Horietatik gehienak urria eta abendua bitartean bukatu gura dituzte.

LABUR

Ludoteka berriro zabalik, arduradun berriekin

Opor aurretik Udalak Tortolis ludotekaren kudatzea lehiaketa publikora atera zuen. Orain dela bost urte, Axtroki euskara elkarteak egin zuen proiektua, eta aurtengo uztailera arte elkarte hori arduratu da ludotekaz. Lehiaketa publiko horren ondorioz, Gasteizko enpresa batek hartu du ardura hori, eta Axtrokik uztailean utzi zion lan hori egiteari.

Urriarekin batera, ikasurte berria hasi dute ludotekan eta matrikulazio kanpaina abiarazi dute. Horrez gain, astean hainbat ekintza antolatu dituzte herriko txikienei ludoteka berriro abian dagoela aditzera emateko.

Astelehenean, plastilinarekin jolastu ziren; martitzenean, bitxiak pastaz egiten ikasi zuten; eguaztenean, maskarak landu zituzten; eguenean, askari edo merienda egin zuten; eta gaur, egubakoitza, jolas erraldoiak, puzgarriak eta beste izango dituzte Luis Ezeiza eskolako jolaslekuan. Ekintza guztiak 17:00etan hasi dituzte, baita gaurkoa ere. Interesatuak ludotekara jo beharko dute izena ematera. Han emango diete informazio guztia.

Hennazko tatuaje ikastaroa, eta kirol hitzorduak

Etzi, domeka, Udaleko Gazteria Sailak gazteendako hennazko tatuajeen ikastaroa egingo du, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Interesatuak izena eman dezakete lehenbailehen honako telefono zenbakian: 620 06 31 15. Bestela, hurrengo ikasurtera itxaron beharko dute.

Bestalde, bihar, zapatua, lehenengo mailako futbol areto taldeak norgehiagoka izango du GSI Bilbo UPV FS taldearen kontra, 18:00etan jokatuko dute Eskoriatzako kiroldegian.

MIRENTXU TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Gustora egoteko!
Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

IDORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko urriaren 7a / 166. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Babes ofizialeko etxebizitzak zerrendak argitaratu dituzte

UBANE MADERA

Bi lekutan ikus daitezke zerrendak: Etxebideren webgunean (www.etxebide.info) eta udaletxean. 98 lagun onartu dituzte; horietatik 52 Aramaio-koak. Eta 98 horien artean zozkatuko dituzte Pedro Inazio Barrutia kalean eraikiko dituzten 44 etxebizitzak.

Zozketa azaroaren 10ean egingo dute, 12:00etan. Lekua oraindik zehaztu barik dute. Esandako moduan, 44 etxebizitza zozkatuko dituzte, garajearekin eta trastelekuarekin. Horietatik 22 Aramaio-ko bizilagunen (52 onartu dituzte) artean zozkatuko dituzte; eta gainontzeko 22ak beste 46 lagun artean. 46 lagun horiek Eskoriatzakoak, Aretxabaletakoak eta Arrasatekoak dira, batik bat. Onartutako pertsonen ezaugarri zehatzagoak ematearren, Etxebidek onartu ditu 35 urtetik beherako 76 lagun; guraso bakarrek bi familia eta kupo orokorreko 20 lagun; guztira, 98.

Era berean, Etxebidek beste 129 lagun baztertu egin ditu zozketa horretatik, aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta zitzaielako.



Pedro Inazio Barrutia kalea, etxebizitzak eraikitzen hasteko egokituta.

GARAJEAK DIRELA-ETA

Bestalde, jakinarazi digute oraindik zehaztu barik dutela etxeon behin betiko proiektua. Gogoratu duzuen bezala, aukera zegoen etxeek berez izango dituzten 44 garajeek gainera, beste 18-20 bat egiteko, betiere, herritarren interesen arabera. Udalak zerrenda bat zabaldu zuen interesa dutenen izenak hartzeko, eta 22 lagunek eman zuten izena. Orain, Udalak jakin

nahi du ea aurrera egingo duten garajea erosteko asmoarekin. Hala bada, etxebizitzaren aurreproiektua egokitu egin beharko dute; izan ere, hasierako aurreproiektuak aurreikusten du garajeak eta trastelekuak beheko aldean ipintzea. Garaje gehiago egiteko, aldiz, trastelekuak etxearen teilatupean ipini beharko dituzte. Horrez gainera, hori egiteko Jaurilaritzaren baimena ere lortu beharko dute.

Aramaio protagonista izango da eguaztenean

U.M.

Inguruko eta urrunagoko margolariek Aramaio bisitatu eta margotuko dute eguaztenean. Izan ere, beste urtebetetz, Itur Zuri Emakume Elkar-teak aire libreko margo lehiaketa antolatu du.

09:00etan hasi eta 11:00ak arte izango dute margolariek lanak egiteko. Edozein teknika erabili ahal izango dute; baina hori bai, gai jakina landu beharko dute: Aramaio eta bere ingurua.

Goizekoa egin eta gero, ohi duten moduan, Itur Zuri elkarte-koek bazkaltzera gonbidatuko

dituzte margolariak. Izan ere, sariak arratsaldean banatuko dituzte, 18:30ean hasita.

ADINAREN ARABERAKO SARIAK

Hain justu ere, sei sari banatuko dituzte, adinaren arabera. Hala, 16 urtetik gorakoendako hiru sari izango dira: 600 euro eta oroigarria; 360 euro eta oroigarria eta 240 euro eta oroigarria. 16 urtetik beherakoendako, berriz, beste hiru sari prestatu dituzte: 150 euro eta oroigarria; 60 euro eta oroigarria eta 30 euro eta oroigarria.

Bestalde, margolan guztiak erakusketa ipiniko dute Sastiñan, astebetetz. Arratsalde zabalduko dute, 17:00ak eta 20:00ak artean.



Joan den urtean Jon Idigoras ermuarrak irabazi zuen irudiotako margolanarekin.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Urtaro aldaketak

U da pasata jada, hemen gaude udazkenaren atarian Euskal Herriko negu gogorren zain. Igaro dira akaberabako egunak, sargoriak eta bero larregiak, kirkilaren hotsaz estaltzen diren egunak gauari ongi-otorria emateko, jaiak, erromeriak, parrandez bustitako gauak, izararekin bakarrik lo egiteko aukerak, hondartzara edota Otxandio-ko igerilekura joatekoak, goizean goiz mendira joatekoak edota kale bazterretan gauerdia arteraino eginiko berbaldiak eta batez ere hain gogoko ditudan hego haizeak ferekatzen dituen udako gauak... Zein gustukoak ditudan! Bai aizue,

joan dira jada. Ai ene bada! Zein agudo pasatzen den gauza ona! San Ferminak amaitzen direnean moduan nik ere zera esango dut: gutxiago falta da hurrengo uda ailegatzeko. Horrekin konformatu behar! Beharko!

Askok eta askok gurago dute udazkena edota negua.

Udazkeneko bero goxoa eta neguko etxe-berotasuna. Bai, egia da. Urtaro guztiak dute haien xarma, abantaila eta desaban-



"Ezagun da opor osteko sindromea dudala!"

nari atea, egun hotzak eta motzak datozen legez gauza onek ere izango baitute bere lekua. Udan egin ezin ditugun

tailak. Hala da. Gainera, batzuentzat abantailak direnak besteentzat desabantailak dira eta alderantziz. Horretan datza bizitza ere: denok gara desberdinak eta berdinak aldi berean. Horretan datza magia. Horretan aberastasuna. Zabal diezaio-gun beraz udazke-

gauza asko baitaude udazken eta neguan, zuetako bakoitzak izango du bere zerrenda.

Idatzi barri dudan artikulu hau irakurri eta gero ondorio bakarra atera dut: ezagun da opor osteko sindromea dudala! Ageri-agerian gainera. Batzuek pasatuta izango duzuen arren, nirea indarrean dago oraindik. Sentitzen dut baina baten batekin hustu behar eta oraingoan zuei egokitu zaizue... Ah eta bide batez, txoko honetan idazten hasi den Kepa Lizarralde zoriondu gura dut eta animatu arren gainontzekook! Hurrengo urtarora arte.

LABUR

Erretiratuen Egunean parte hartzeko aukera

Datorren urriaren 29an ospatuko dute aurtengo Erretiratuen Eguna. Eta iaz bezala, aurten ere Udalak dei egiten die azokan parte hartu nahiko luketen herritarrei hala egin dezaten. Jakinarazi digutenez, partehartzailei Udalak berak ipiniko die azokarako mahaia eta beharrezkoa duten guztia. Hemen-gozko produktua, etxean egindakoak... ipin daitezke azokan. Intereza duenak Udalera jo beharko du.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Berka	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Guaitze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxa eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubako Eskualdea	945 43 01 67
Schizizalleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute.

Auzotako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ELURRA ETA IZOTZA KENTZEKO LANGILEAK BEHAR DITUZTE

2005-06 eta 2006-07 kanpainarako behar dituzte langileak, honako ibilbideetan lan egiteko: A-2620 errepidean, Legutianotik Gipuzkoarako mugara arte; eta A-3941 errepidean, Otxandiotik Kurtzetara, Oletatik. Zuiako Koadrilak egin du deialdia, beraz, interesa dutenek koadrilarekin ipini beharko dute harremanetan: 945 43 01 67 telefonoan, edo bulegoan: Murgian, Udaletxearen Plaza, 1-2, 08:30etik 14:30ak arte. Epea bukatzen da urriaren 14an, 15:00etan. Honako baldintzak bete beharko dira, besteak beste: Kurtzetatik gertu etxebizitza izatea edo hor lan egiten duen elkarte izatea, elur eta izotzaren arazoei azkarrago erantzuteko. Gorpil guztietan trakzioa duen traktorea behar du eta traktoreak 100 ZP baino potentzia handiagoa behar du.

ARGI MOZKETAK

Urriaren 13an eta 14an argi mozketak izango dira auzo guztietan, Ibarren izan ezik. Transformadorean egin beharreko lanen ondorioz egin behar dituzte mozketak.


Erromanikoa den kapitela dute Zalgo auzoko Okarantza baserrian

U.M.

Zalgon ermita erromanikoa izan zenaren frogak erakutsi nahi izan digu Pablo Beitia zalgotarrak. Lehenago ere egin izan du ahalegin bera Aramaion, baina esan digu oraindik ez duela lortu espero zuen erreakzioa. Horrexegatik erabaki du kapitelen berri publiko egitea.

Pablo Beitiaren ustez, XIII. mendearen erdi inguruan Zalgon ermita erromanikoa zegoen. Halaber, bere etxetik gertu aurkitutako kapitela erromaniko batek erakusten du hori; "kanposantuko pareta jausi zenean, hantxe agertu zen kapitela (...) Micaela Portilla historiadoreak eta Madrilgo Museo Arkeologiko Erromanikoko adituek ikusi dute eta baieztatu egin didate erromanikoa dela (...) Askotan komentatu izan da Zalgoko San Martin parroki zaharra noizkoa ote den; kapitela XIII. mendekoa da; hortaz, Zalgoko ermita ere ordukoa izango zen, parrokiak bihurtu baino lehen. Beraz, erromanikoa".

J.M. Elexalde ere antzerako pentsaera du Zalgoko ermitaren dataren gainean. Hara zer dioen bere liburuan: "Badakigu Aramaio jauntxoak oso ezagunak eta garrantzitsuak zirela 1284an dagoeneko. Eta ez dugu tradizioarik esateko jauregia edo gaztelua Barajuenen ez beste nonbaiten zutela. Hala ere, hilobiak Zalgon



Argazkian ikusten denez, aurrera begira dauden bi lehoi simetrikoki ditu kapitela.

Kapitela XIII. mendekoa da; hortaz, Zalgoko ermita ere ordukoa izango zen

ziztuzten eta elizako patrioak ziren. XIII. mendearen amaieran edo XIV.aren hasieran - hori da Zal-

'Zalgon, Pabloren eta Natiren etxean dago ipinita; ikusi nahi duenak esan besterik ez dauka'

goko elizaren eraikitzeari ematen diogun data- elizate hura ez zen Barajuengo baino handiagoa. Eta

Aramaio jauntxoek hantxe bazituzten euren hilobiak eta hango patrioak baziren, uste dugu ibarreko lehen tenplua zela eta gertatzen zela hori (ermitak ezik) eta haren eraikuntzan zerikusi handia izan zutela". Elexalde egiten dituen galderetako batzuk dira ea han bizi izan ziren ibarreko lehenengo jauntxoak; edo Torraldeko gaztelua eraiki eta gero ez ote zuten eliza lehenengo leinu etxean eraiki. Orain, Pablo Beitia aurkitu eta urtetan zaindu duen kapitela teoria hori berretsi egin dezake.

IKUSI NAHI DUENAK BADU AUKERA

Eta gainera, herriko eskura ipini nahi du altxor hori. Behin sei hilabetez izan zuen kapitela Okarantza baserriaren kanpoan, herrikoek ikus zezaten. Gero, etxe barruan gorde zuen, kalterik jasan ez zezan. Orain, berriz gonbidatu nahi du kapitela ikusi nahi duen edozein: "Zalgon, Pabloren eta Natiren etxean dago; ikusi nahi duenak esan besterik ez dauka".

DEBAGIENEAN AZTARNA GUTXI

Izan ere, Pablo Beitia interes berezia du Debagoienan dauden aztarna erromanikoak behar bezala zain ditzaten: "Halako aztarna gutxi dago Debagoienan. Nik proposatuko nuke daudenak begiratu, sailkatu eta estudio bat egiteko". Halaber, Zalgokoaz gainera, Aramaion Arragan eta Urribarrin (Santiago ermita) daude halako aztarnak.



Kiroldegiko zuloak estali dituzte

Apurka-apurka badabilta kiroldegiko lanak egiten. Orain martitzenean estali egin dituzte apurtuta zeuden leihoak, eskailera ondokoak; era berean, kantxa gaineko leihotxoak ere konpondu dituzte. Eta aurrerago, ate berria ipiniko dute. Horrez gainera, obrak egiten dabilen Argi-Plastik enpresa-koek jakinarazi digute akaso aurrera begira konponketa gehiago egin beharko dituztela kiroldegian, eta horren ondorioz ez dakitela noiz bukatuko dituzten lanok. /U.M.

LABUR

Aramaio Udalak antolatutako argazki lehiaketarako epea hil honetan bukatzen da

Hain zuzen ere, parte hartu nahi duenak urriaren 28a baino lehen entregatu beharko ditu argazkiak Aramaio udaltxean edo kultura etxean. Guztien artean, hiru saridun aukeratuko dituzte; lehenengoari 200 euroko saria emango diote; bigarrenari 150 eurokoa eta hirugarrenari 100 eurokoa.

Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak honakoak dira: parte-hartzaile bakoitzak nahi beste argazki aurkez ditzake; zuri-beltzean edo koloreetan; argazkian izenburua eta data ipini behar dira; argazki bakoitza gutun-azal batean aurkeztu behar da, kanpoan izenburua eta data idatzita dituela. Gero, barruan, gutun-azal txikiago batean, izenburu bera eta egilearen datuak sartu behar dira.

Hogei bazkidetik gora parte hartu zuten Kurtzeta-Gain elkartearen batzarrean

Urteroko batzar orokorra egin du Kurtzeta-Gain plater jaurtiketako elkarteak. Bestelakoan artean, bi gai landu dituzte: urteko kontuak aurkeztu eta zuzendaritza batzorde berria osatu. Bigarren puntuari dagokionez, honako taldea aukeratu dute: Angel Ullibarriarana presidente (orain arte moduan); haren anaia Enrike Ullibarriarana idazkari eta Oskar Arrizabalaga eta Mikel Aiausti batzordekide (Enrike Gardokiren eta Jabier Balantzategiren ordez). Bestelakoan artean, zuzendaritza batzorde horren lana izango da datorren urterako egutegia antolatzea. Edozelan ere, otsail edo martxo inguruan egingo dute hori.

Horrez gainera, jakinarazi digute elkarteak dituen 52 bazkideetatik 22k parte hartu duela urteko batzar orokorrean. Haren ostean, afaria egin zuten.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a / 22. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

35 kilometro egingo dituzte Gatzagako mendiko bizikleta irteeran domekan

XABIER URTZELAI

Joan den urtekoarekin alderatuta, apur bat luzeagoa egingo dute aurtengo ibilbidea (5 kilometro inguru). Domekan, 10:00etan hasiko dute mendiko bizikleta irteera. Izena eman ahal izateko, nahikoa izango da ordu erdi lehenago plazan egotea.

Eta ez izena emateko bakarrik, bizikleta martxa hasi aurretik apur bat berotzea ere komeni da-eta. Izan ere, Gatzagako ibilbideak hasiera gogorra izango du: "Gatzagatik Dominara, handik Aurdinganera, Angutara, Uso-koaitzera eta handik Landara egingo dute", esan digu Jon Sasiainenek. Auzo horiek ezagutzen ez dituenarendako esan, gutxi gorabehera Gatzagatik Dorletara, eta handik ezkerretara egingo dutela, Ertzainen antena aldera. Horrek esan gura du lehenengo zazpi kilometroetan malda ederrak izango direla. Landatik Gure Ametsa jatetxerantz egingo dute, eta hortxe jarriko dute jatekoa eta edatekoa (20. kilometroa izango da). Indarrak apur bat errekupe-ratu eta gero, Gaztainuzketatik gora egingo dute, Jarindora iritsi barik lehenengo trenbide zaharreko bidea hartu, eta berriro ere Gatzagara jaisteko.



Besaide Mendi Elkarrekin antolatutako irteeran, Gatzagatik jarri zuten jatekoa eta edatekoa.

5 KILOMETRO GEHIAGO

Jon Sasiainen esanetan, joan den urteko ibilbidearekin jendea oso gustura geratu zen, baina motz samarra izan zela-eta, apur bat gehiago luzatzea erabaki dute: "Joan den urtean 150 lagun inguru etorri ziren, eta aurten bizikleta zale gehiago espero ditugu. Dagoeneko badakigu Gasteiz alde-

tik 15 laguneko koadrila bat etorriko dela",

Nagusiendako bakarrik ez, gaztetxoendako ere beste ibilbide bat antolatu dute, Gure Ametsatik Landaraino joango dena: "Bizikleta irteeran parte hartzeko nagusiek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta gazteek 6 euro. Prezioaren barruan egon-

go da kamiseta bat, hainbat produktoren zozketa, hamarretakoa, proba eta gero egongo den luntxa...". Horrekin batera esan, 4x4 autoak eta motorrak izango direla arazoak dituzten txirindulariei laguntzeko, eta ibilbidea amaitutakoan bizikletak garbitzeko eta dutxatzeko aukera ere izango dela.

LABUR

Gazteendako pilota ikastaroa antolatu du GURELek

Martitzenetan eta eguaztentean egingo dute ikastaro hori, 18:30etik 19:30era arte. Jose Angel Belokik emango du herriko gaztetxoendako zuzenduta dagoen ikastaroa. Horretarako, gainera, Gurasoen Elkarrekin Udaleri eskatu dio ordutegi horretan pilotalekua ikastaroarendako gordetzea, eta Udalak onartu egin du hori. Hala, ikastaroaren helburuetako bat da Gatzagako pilota taldea sortzea. Animatezen denak Labidea dendan eman ahal du izena.

KZgunea zabalik, eta urriko ikastaroak gertu

KZgunea zabalik dago berriro ere, eta herritarrek astelehenean egubakoitzera erabili ahal izango dituzte bertako ordenagailuak (17:00etatik 20:00ak arte). Horrekin batera esan, urriaren 10erako eta 24rako antolatu dituztela urriko ikastaroak. Hilaren 10ean, Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko du Aitor Madrilek, eta hilaren 24an, Internet erabiliz etxetik nola erosi irakatsiko du.

15 egun emango dizkiote Diputazioari erantzun dezan

X.U.

Joan den egubakoitzean egin zuten Gatzagako herritarrek udaletxean batzarra. Autobus zerbitzurik ez daukatela salatze eman beharreko pausoen gainean ibili ziren berbetan.


Oraingoan, gainera, Gatzagako talde guztiak egon ziren ordezkartuta, herriko gazteak ere izan ziren-eta batzarrean. Gainera,

gazteek ere arazo horren gainean asko dute esateko.

Zein mobilizazio egin adosteko elkartu ziren egubakoitzean, baina azkenean erabaki zuten Udalak Diputazioari gutun bat bidaliko diola, eta herritarrek beste bat. Hala, Koldo Azkoitia diputatuari eskatuko diote 15 egunen epean batzar bat egitea, herriaren duten arazoa azaltzeko: "Gainera, Koldok ondo ezagutu beharko luke Gatzagako arazoa, herriko bizi-

lagun izan zen-eta", esan digu GURELeko presidentek.

Udaleko ordezkariak batzarrean esandakoaren arabera, badirudi Diputazioak gaiari heltzeko keinua egin duela, eta ezer egin aurretik hori horrela den ikusi gura dute herritarrek. Hori bai, erantzunik jasotzen ez badute, herritarrek han eta hemen azalduko dute daukaten arazoa zein den, eta erantzuleak nortzuk diren ere argi eta garbi adieraziko dutela esan digute.



Autobusik ez, eta zirkulazio handia egoten da gainera.



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**Eraman
dotoretasuna
zure etxera**



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Zoru aukera zabala
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak
eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz




KEPA URRA



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



IGOR LETONA



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




GORKA AZTIRIA




GAIZKA OLABARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE

*Alaitasuna ta jai giroa
ez dira izango aparte
baina halere falta direnak
oroitu nahi genituzke
Eperra, Ion eta beste guztiak
nahi doguz hemen ta aske
gure herria maite dugunez
ez dugu etsiko bape
borroka eta jaia uztartuz
helburuak lortu arte*